

**Victor Alexandre**

*Yo no soy español*  
liburuaren egilea

GEUREAN, 8



**Asteburu ona Aloña Mendi eta UDArendako**

Bergarak eta Mondrak, berriz, jipoi latzak jaso dituzte

KIROLA, 14

**Ruper Ordorika**

Mugalariekin aritu zen Espaloian

KULTURA, 22-23



# ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko apirilaren 25a • 2. urtea • 54. zenbakia • 0,90 euro

## Iritsi da 2004ko errenta aitorpena egiteko garaia

*Gaur hasi eta ekainaren 27ra bitarteko epea jarri du Foru Ogasunak errenta aitorpena egiteko*

Gaurtik eta ekainaren 27ra arte, Ogasunarekin ditugun zorrak edo Aldundiak gurekin dituenak kitzeko garaia izango da Debagoieneko bizilagunendako ere. Bergarako bulegoan 11.000 aitorpen inguru egingo dituzte; 200 bat egunero. Autolikidazio proposamenek nabarmen gora egiteaz gain, ez du berritasun aipagarriarik aurtengo kanpainak. **5**

**AURRELIKIDAZIOAK**  
Gora egin dute. 118.433 autolikidazio proposamen bidali dituzte. Zergadunak etxean jasotzen du, postaz

**TXANDA HARTZEKO**  
Aitorpen mekanizatua egin nahi dutenek 902 10 00 40 telefonora deitu behar dute txanda hartzeko



JON UNAMUNO

## Borja Ramosek jantzi zuen txapela

*Kantabriara, Gaztela-Leonera eta Frantziara joan ziren lehen sariak* **16**

**Ur-kontsumoa Interneten ikus daiteke**

*Horretarako, 'gipuzkoakour.com' ataria jarri du sarean ur kontsorzioak* **4**

**Munduko zeramikagile onenak Oñatin**

*Herbehereetako NVK zeramikagileen erakusketa irekiko dute eguenean* **27**

**Hamalau urtean Debagoiena Gipuzkoako 4. hiria izango da** **2-3**

**Bergarako Osintxu auzoan zubi berria inauguratu dute** **4**



AINZANE AGIRRE

**1.500 LAGUN OSKORRIREN IKUSKIZUNAREN ESTREINALDIAN**

Oskorrik Arrasaten estreinatu zuen atzo, Kukubiltxorekin batera, umeendako prestaturiko *Doktor Do Re Mi eta benedizebra* ikuskizun berria. Uarkape pilotalekuan 1.500 haur eta heldu elkartu ziren kilometroek antolatutako estreinaldian. Sarrerak agortu egin ziren. Umeak zoratu egin zituen Do Re Mi doktore burutsuak. **25**

# GEUREAN

- Ibarreko abere ustiatagietako jabeek hiltegia Mankomunitateak kudea dezan nahi dute | 6
- Agur beroa egin zieten Oñatiko lau gazteei; jende ugari parrokian ezin sartu geratu zen | 6

Sagardogileen eguna jendetsu eta aterri ospatu zuten domeka goizean Aramaion | 6

## DEBAGOIENENKO ESKUALDE-EGITURAKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANA

DEBAGOIENENKO PLANA | APIRILAREN 14AN ONARTU ZUEN JAURLARITZAK ESKUALDEKO ZATIKO PLANA

# Hamalau urtean Debagoiena Gipuzkoako 4. hiria izango da

*Planaren arabera, 70.000 laguneko populazioa behar da laugarren hiri izateko*

*Planak ia hamar mila etxebizitza egitea aurreikusten du Bergara eta Oñati aldean*

Marijo Deogracias

Datozen hamalau urteetan zehar garatuko den Debagoieneko Lurraldearen Zatikoko Plana onartu du Eusko Jaurlaritzak. Ibarrean egingo diren azpiegitura handi gehienak jasotzen ditu, bai eta ingurumena eta ondarea zaintzeko ekimenak ere. Bi urte behar izan ditu planak behin betiko onarpena jasotzeko –epe horretan Debagoieneko Udalek alegazioak aurkeztu dituzte–; apirilaren 14an onartu zen plana. Egitasmo honek Debagoiena Gipuzkoako laugarren hiri bihurtzeko asmoa duela aitortzen du; horretarako, ordea, 70.000 bizilagun izan behar ditu gutxienez eskualdeak.

### BIZTANLEAK GORA

Gaur egun 70.000ko kopurua gaindituta dago eta aurreko urteetako erroldak ikusita, goranzko joera igartzen da: 1981eko erroldaren arabera, 67.754 lagun bizi ziren Debagoiengan; 1991n, 66.419; 1996an, 64.907 eta 2001ean, 63.476. Hurrengo urtean gora egin zuen berriz ere biztanleriak (63.656) eta gaur egungo errolden datuen arabera, 70.563 lagun bizi dira Debagoiengan.

Hala ere, hiri handietarako joera dagoela diote adituek eta horren arrazoiak, planean jasotzen denez, zerbitzu eta kultura eskaintza txikia ei da. Debagoieneko Mankomunitateko kultura batzordeko idazkari tekniko German Meabebasterretxea ez

dator bat baieztapen horrekin; “ez dut uste gaur egun kultura eskaintza falta inor ibarretik kanpora bizi izatera joateko faktore bat denik, akaso, faktore multzo bateko faktore bat gehiago izan daiteke”. Hala ere, Debagoieneko kultura teknikariak hasita daude eskualdeari begirako kultura ekitaldiak antolatzen; ekainaren 10etik 12ra Arrasaten Mundumira jaialdia egingo da, esaterako.

Bestalde, planean esaten denez, jendea ibarrera lanera etorri arren, gero ez da bertan bizi izaten geratzen. Baliteke, zerbitzu eskaintza gehitzen den heinean aldatzea jokabide hori, baina lehenengo etxebizitzaren eskaintza gehitu beharko litzaiteke eta etxeen prezioak merkatu. Asmo horrekin egingo diren 9.000 etxeetatik 2.000 pasatxo babestutako etxeak izango dira.

**2001ean errolda 63.476koa zen; gaur egun 70.563 lagun gaude**

**Kultura arloan ere ibarreko ikuspegiarekin ari dira lanean teknikariak**



AINZANE AGIRRE

Oñati ageri da Planean etxebizitzak gehitzeko aukerak dituen herri moduan.

### Zenbakiak

# 70.563

Debagoieneko udalerrietako azkeneko errolden arabera, 70.563 lagun bizi dira gaur egun eskualdean. Planak 70.000 laguneko populazioa aurreikusten du Gipuzkoako 4. hiri izateko. 2002an 63.656 lagun bizi ziren Debagoiengan.

# 1.170.000 m<sup>2</sup>

Hori da Debagoiengan egin nahi diren industriaguneek hartuko luketen lursaila. Hala ere, Deskargan egin nahi dena atzera bota du oraingo, Aldundiak. Autopistaren proiektuan Deskargan egingo den tunelaren lanak hasi arte, gutxienez.

# 9.536 etxe

Joan zen astean onartu zen Lurraldearen Zatikoko Plana Debagoiengan 9.536 etxebizitza eraikitzea aurreikusten du. Gainera, zortzi urteko epean horietako 7.200 etxe hasita egotea ere aurreikusten du.

# 14 urte

Debagoieneko eskualde-egiturako lurraldearen zatiko planak datozen 14 urteetako ibararren hazkunde planak jasotzen ditu. Orain dela 2 urte aurkeztu zen lehenengo egitasmoa eta apirilaren 14an onartu zuten behin betikoa.

DEBAGOIENENKO ESKUALDE-EGITURAKO LURRAREN ZATIKO PLANA


• PLANAK JASOTZEN DITUEN EKIMENETAKO BATZUK



**BABESTUTAKO ETXEBIZITZAK.** 9.536 etxebizitza eraikitzea jasotzen du planak. Horietatik 2.510 izango dira babestutako etxeak. Oñati eta Bergarako udalerrietan eraikiko dira etxebizitzarik gehienak, batez ere, herrien hazkundearen artean oreka bilatzen duelako planak. Argazkian: Bergarako San Antonio auzoko babestutako etxeak.



**URKULUKO PARKEA EZ DA EGINGO.** Urkuluko egitasmoa bertan behera geratu zen, ibarreko Udalek eta ekologista taldeek egindako alegazioak tarteko. Hala eta guztiz ere, ekologistek salatzen dutenez, baliteke aurrerago berriz ere antzeko egitasmoren bat agertzeaz.



**INDUSTRIAGUNE BERRIAK.** Bost industriagunetan aritzea jasotzen da planean: Garaia (50 hektarea), Garagartza-Berezao (30 hektarea), Eskoriatza (6 hektarea), Zaldunbide-Bergara (6 hektarea) eta Deskargako (25 hektarea) industriaguneak. Guztira 117 hektareako industriagunea osatuko lukete. Argazkian: Arrasateko Markulete.



**UDALAITZ.** Udalaitz zaintzeko egitasmoa ere jasotzen du Zatikiko planak. Babestutako natura-espazio izendatu du, Aizkorriko natura-parkea, Urkiolako natura-parkea eta Albinagoiko pagadiarekin batera. Gorostiaga, Irukurutzeta-Sorus-Itxumendi eta Gorca-Trekutz, berriz, interes naturalistikodun eremu izendatu ditu.

• LZP-K ZER EKARRIKO DIO GURE BAILARARI?



**KOLDO PEREIRA** |  
DEBAGOIENENKO INDUSTRIALDEKO GERENTEA

“Orain arte egin ditugun industriagunetako pabilioi guztiak salduta daude, eta dagoeneko, badira Arrasaten zein Bergaran handitzeko asmoak. Premiak egon, badaude, enpresa batzuek lekuz aldatu nahi dutelako eta beste batzuek handitu egin nahi dutelako.


Hortaz, ekonomikoki oso garrantzitsua da onartutako plana”.



**JABIER ABALDE** |  
EKOLOGISTAK MARTXAN TALDEKO KIDEA

“Urkulun egin nahi zen habitat alternatiboa planak ez jasotzea lortu genuen; hala ere, planak ez ditu autobidearen eta AHTaren proiektuak jasotzen.

Tranbia aurreikusten du, baina ez Renferekin edo Euskotrenekin izan ditzakeen loturak; beraz, eskualdeko garraio publikoaren azpiegitura ez da behar bezala konpontzen”.



**IGNAZIO LAKUNZA** |  
MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIA

“Udaletara ez digute behin betiko plana helarazi; hala ere, datozen 14 urteetan ibarrean egongo diren bizileku guneak eta industrialak zeintzuk izango diren aurreikusten ditu.

Gure sare industrialaren balioa aintzat hartzen du planak eta ibarrean orain arte izan dugun etxebizitzaren gabeziari soluzioa ematen dio”.



**GERMAN MEABEBASTERRETXEIA** |  
MANKOMUNITATEKO KULTURA TEKNIKARIA

“Ez dut uste kultura eskaintza falta inor bailaratik kanpora bizi izatera joateko faktore denik; agian, faktore multzo bateko beste bat izan daiteke. Hala ere, Mankomunitatean sortu berri dugun Kultura Batzordeak ahalegin batzuk egin ditu ikuspegi orokor batetik antolatutako nazio mailako kultura eskaintza gehitzeko. Ekainean, Mundumira jaialdia egingo dugu”.

# Ur-kontsumoa 'sarean' begiratzeko

*Uraren kontsumoa Internet bidez ezagutzeko aukera dago 'gipuzkoakour.com' atariari esker. Egubakoitzetik dago martxan*

M.D.

Gipuzkoako Urak erakundeak, Debagoieneko ura gestionatzen duen erakundeak, hornitzaileei harrera hobea egiteko asmoz webgunea jarri du sarean: [www.gipuzkoakourak.com](http://www.gipuzkoakourak.com). Zerbitzu horri esker, abonatuak polizaren zenbakia erabilita sartuko dira atarira, kontsumoa zenbatekoa izan duten ezagutzeko eta kontagailuaren irakurketa egiteko.

Webgunea joan zen egubakoitzean aurkeztu zuten Arrasaten, Gipuzkoako Urak erakundeko zuzendari gerente Iñigo Elosegik, erakunde horretako gestio zuzendari Joxemi Telleriak eta eskualdeko hainbat alkatek, tartean, Bergarako alkate Victoriano Gallastegik eta Mankomunitateko lehendakari Ignazio Lakuntzak.

Webgunean egin ahal diren eragiketak hauek dira: ur-hornidura alta eta baja egin, abonatu



Webgunearen aurkezpena egin zuten Arrasaten egubakoitzean.

polizak kontsultatu, jabe aldatuak egin, ordainagiriaren kontsulta (2000tik hona jasotako ordainagiri guztiak daude kontsultatzeko moduan), norberaren kontsumoaren grafikoak ikusarazi aukeratutako epean, kontagailuaren irakurketa eta emaitza jaso, eta edozein mota-

tako kontsulta eta erreklamazioak egin.

## TELEFONOZ ERE BAI

Internet bidezko zerbitzuaz gain, telefono bidezko harrera ere badago. 24 orduko telefono bidezko harrera da eta zenbakia 902 30 22 22 da.

# Zubi berria inauguratu du Osintxun Soraluze enpresak

*Gerondo parean egin dute eta zapatuan inauguratu zuten lantegiko buruek*

M.B.

Soraluze S. Coop. lantegiko arduradunak, langileak eta langile ohiak batu ziren zapatuan, Bergarako Osintxu auzoan egin duten zubi berria inauguratzeko ekitaldian. Zinta moztu, Ezo-ziko Ama abesbatzaren emandari txikia entzun eta luntxa ere izan zuten bertaratutakoek.

Soraluze enpresak finantzatu du zubia 1,2 milioi euroko gastuarekin, Bergarako Udalarekin hala hitzartuta zuelako.

Zeresan ugari eragindako zubia da. Izan ere, Osintxu auzo-



Miguel Herrera enpresako presidentea eta Rafa Barrenetxea, gerentea.

an dagoen XV. mendeko zubi bakarra erabili izan dute orain arte Soraluze enpresako kamioi handiek eta horrek auzotarren haserrea eragin du. Baita zubia nabarmen kaltetu ere. Aurreantzean kamioi handiok zubi

berria erabiliko dute auzotik irteteko.

Bestalde, XV. mendeko zubia berritzeko proiektua ere martxan dago. LKS Ingeniaritzari esleitu zion Udalak otsailean. Lanak laster hasiko dira.



Gurutze Gorriak San Prudentzion duen egoitza.

# Gurutze Gorriak egoitza berri baten bila dihardu

A.G.

San Prudentzioko bidegurutzeko Gurutze Gorriaren egoitza txiki geratu eta leku arriskutsuan dagoela eta, egoitza berria egitekotan ziren gaur egungoaren pare-parean. ASTELEHENKO GOIENKARIAK jakin duenez, proiektua egin zuten, baina lanak ezin izango dituzte hasi,

tranbiarentzako erreserbatutako orubea delako aukeratu zutena. Gauzak horrela, asmoa erabat geldituta dute Gurutze Gorrikoek; hala ere, bestelako aukerak aztertzen hasita daude. Egoitza berrian, besteak beste, sorosle ikastaroak ere eman nahiko lituzkete Gurutze Gorrikoek. Horretarako, egoitzaz gainera, 100 m<sup>2</sup> gehiago beharko lituzkete.

## LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA



## GEUREAN ERE LIBURUAK KALERA ATERA DIRA

Zapatuan, Liburuaren Nazioarteko Eguna zela eta, hainbat ekitaldi izan dira ibarrean. Aramaion esaterako, bigarren eskuko liburu azoka egin zuen Gazte Asanbladak, herritarrek emandako liburuekin. 800 bat batu zituzten eta 200 inguru saldu, prezio merkean (asko euro batean). 374 euro batu dituzte eta diru hori Angolarara bideratuko dute. Bergaran, bestalde, kalera atera zuten Udal Liburutegia eta Mattin ilustratzailea ere han izan zen bere dohainak erakusten.

# 0000 km

Mondeo  
C-Max  
Fiesta

Haxe  
da  
aukera!

**MUGARRI**

Araba Etorbidea, z/g  
ARRASATE  
[www.mugarri.es](http://www.mugarri.es)



gozatzeko pentsatuak  
irauteko eginak

ERRENTA AITORPENA | EKAINAREN 27RA BITARTEAN DAGO ZABALIK AITORPENA EGITEKO EPEA

# Gaur hasiko da errenta aitorpena egiteko epea gure ibarrean ere

*2004ko ekitaldiari dagozkion 11.000 bat aitorpen egingo dituzte Bergarako bulegoan*

Monika Belastegi

Iritsi da errenta aitorpena egiteko garaia. Gutxiago edo gehiago, baina beti buruhauste. Gaurtik, apirilak 25, eta ekainaren 27ra arte, Ogasunarekin ditugun zorrak edota Foru Aldundiak gurekin dituenak kitatzeko garaia izango da Debagoieneko bizilagunenendako ere.

Debagoiendar zergadun gehienek aitorpen mekanizatua egingo dute eta, horretarako, Foru Ogasunak Bergaran iaz egokitu zuen bulegora joko dute, Toki Eder plazako 5. zenbakira, hain justu ere. Mikel Ibarrondo Bergarako bulegoko arduradunaren esanetan, 11.000 bat errenta egingo dituzte bulegoan. Horrek ez du esan nahi egiten dituzten guztiak debagoieneko bizilagunenak direnik; ezta debagoiendar guztiek han egiten dutenik ere. Izan ere, 12 bulego ditu Foru Ogasunak Gipuzkoan barrena eta ibarretik kanpo bizi edo lan egiten duen batek nahiago izango du beste norabait jotzea. Bestalde, aitorpen mekanizatua bada ere aukerarik hedatuena, badira



Bergarako bulegoan egunero 200 bat errenta aitorpen egitea aurreikusten dute ekainaren 27ra bitartean.

norberak egitea nahiago izaten dutenak, edo aurrezki kutxetan, gestoretan... ere egin daitezke errenta aitorpena.

## BERRITASUN GUTXI

Berritasun handirik ez dago aurtengo errenta aitorpenean, baina iaz nobedade izan zirenek

indarrean jarraituko dute. Horien artean, hainbat zergadunendako abantailak daude: besteak beste, erretiro edo ezintasun

pentsoiak dituztenendako, familia ugariendako, INEMetik dirua jasotzen dutenendako... Beti ere, hainbat baldintza betez gero.

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

Mikel Ibarrondo bulegoko arduradunak azaldu duenez, urteko hainbat argibide kontuan hartu behar dira. Esaterako, herritar guztiak ez daudela behartuta zerga aitorpena egitera.

Salbuespen asko dago, baina garrantzitsua da, batetik, urteko lan etekin gordina 18.000 eurotik behera dutenena da; bestetik, kapital higiezinaren eta higikorren etekinak eta ondare irabaziak, batera hartuta, 1.600 eurotik beherakoak izatea.

Ostera, Ibarrondok gogorarazi du 8.500 eta 18.000 euro bitarteko lan irabazi gordinak dituztenen artean badirela zerga aitorpena egitera behartuta daudenak. Kasu ezberdinak daude hemen ere, baina ohikoena honakoa da: lan edo administrazio kontratu edo harreman bat baino gehiago izenpetu dutenena. Baita kontratuaren epea amaituta, enplegu emaile berarendako lan egiten jarraitu dutenak ere. Horiek ere, errenta aitorpena egin beharko dutela azaldu du Ibarrondok.

Horrez guztiaz gain, badira beste modu batzuk ere aitorpena egiteko, Internet, esaterako; bulegoko arduradunaren esanetan, gero eta jende gehiagok erabiltzen duen bidea da. Iaz, 11.423 lagunek erabili zuten bide hori; duela bi urte, 9.276k.

## Autolikidazio proposamen kopurua gora

Foru Ogasunak 118.433 autolikidazio proposamen egin ditu 2004ko ekitaldian. 2.000an ekin zion modalitate honi eta urtetik urtera gora egin du. Iaz, 74.309 proposamen bidali zituzten eta proposamenon % 76,8 onartu ziren. Zergadunak etxean jasotzen du, postaz, autolikidazio proposamena eta baiezkua edo ezezkoa eman behar dio. Aurreko urteetan bidalitako autolikidazio proposamen guztiak zergadunaren alde izan dira; aurreko, lehenengo, 26.370 kontrako bidali dute.

## Ekainaren 27ra arteko epea dago aitorpena egiteko

Autolikidazio proposamen formulak azkartu egiten du errenta aitorpena egiteko prozesua. Hala, gero eta epealdi motzagoa zabalitzen du Foru Ogasunak errenta egiteko. Aurten ekainaren 27ra arte egongo da zabalik. Bestalde, aurkezpen motari dagokionez, gipuzkoar gehienek mekanizatua egingo dute. Iaz, partikularren 355.305 aitorpen egin ziren: 127.599 mekanizatu -10.807 Bergarako bulegoan-; 11.423 Internet bidez; 14.738k disketean aurkeztu zuten eta 9.344k, paperean.

## Ibarrekoondako Bergaran du bulegoa Foru Ogasunak

Debagoieneko zergadunok errenta aitorpena egiteko bulegoa Bergaran du Foru Ogasunak. Iaz, gainera, bulego berria zabaldu zuten, Toki Eder plazako 5. zenbakian. Aitorpen mekanizatua egiteko txanda hartzeko epea zabalik dago apirilaren 21etik eta horretarako 902 10 00 40 telefono zenbakira deitu behar da. Internet bidez ere egin daitezke [www.gipuzkoa.net/ogasuna](http://www.gipuzkoa.net/ogasuna) helbidean. Bulegoa 08:00etatik 14:00etara dago zabalik. Bestalde, bulegoko arduradun Mikel Ibarrondoren esanetan, dagoeneko hartuta daude lehenengo hiru egunak, hau da, gaur hasi eta eguaztenera arte. Eguneko 200 bat aitorpen egiteko dituztela ere aurreratu du.



**MEMESA**  
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE  
TEL.: 943 712 425  
FAXA: 943 712 297

ARETXABALETA  
TEL.: 943 712 411  
FAXA: 943 712 004

OÑATI  
TEL.: 943 718 080  
FAXA: 943 718 045



**SEIN**

grupotaldea  
Euskadiko erreferente nagusia  
industria horniduran



AINTZANE AGIRRE

Sagardogile egun jendetsu eta eguzkitsua izan zen Aramaion atzo egindakoa.

## Jende asko batu zen sagardogile egunean

*Herriko hamasei sagardogile elkartu ziren Aramaion atzo egin zuten sagardogileen egunean*

M.D.

Aramaion sagardozealeak dira. Atzo behintzat bai. Herriko hamasei sagardogilek euren sagardoa jarri zuten herritarrek dasta zezaten; 2,5 eurotan edalontzia erosi eta trukean herrian egindako hamasei sagardo edateko aukera. Bitartean, sabela betetzen joateko, txorizo eta gazta pintxoak eta taloa. Txirritola euskara elkarteak antolatutako sagardogile eguna egin zuten aramaioarrek.

Han aritu ziren Txirritola-kideak elastiko urdinak jantzita talogintzan, pintxo salmentan eta sagardoa nola egin erakusten. Jendea eguerdi aldera hasi zen plazaratzen. Orduan ekin zioten bertso saioari Andere Arriola-bengoak eta Iker Agirrek.

### SAGARDOAZ IKASTEKO

Sagardoa egiten ere erakutsi zuten; argibide-panelak jarri zituzten kalean eta sagardoa egiteko erakustaldia ere egin zuten dolare eta guzti.

### Azoka datutan

• **SAGARDOGILE KOPURUA**  
Hamasei sagardogile.

• **BASERRIAK**  
Likiniano, Salazan, Labiena, Iturrieta, Salgo, Muru, Urugu, Azkoanaga Nagusi, Mendibitzu, Alziaga, Bolinburu, Unzena, Aurreko Etxebarri, Emaldi, Jauregi Txiki eta Maskaño.

• **EDALONTZIAK 2,5 EURO**  
Edalontzia 2,5 eurotan erosi eta nahi beste sagardo edateko aukera izan zuten bertaratutakoek.

• **ANTOLATZAILEA**  
Txirritola euskara elkarte.

### • OÑATIKO SEI SEMEK 50 URTE BETE DITUZTE APAIZGINTZAN

#### DOMEKAKO MEZETAN OSPATU ZITUZTEN URREZKO EZTEIAK

Jose Luis Salas, Jabier Etxeberria, Jesus Iturrospe, Migel Aranburu eta Joan Aiastuik eman zuten domekako meza Oñatin. Eukaristiaren barruan ospatu zituzten Urrezko Ezteiak bost oñatiar hauek. Seigarrena, Xalbador Biain ezin izan zen bertaratu gaixo zegoen eta.

“Eskerrak eman nahi dizkiogu Jaungoikoari apaizgintzarako hautatu eta gorde gaituelako”, esan zuten apaizek.

Elizkizunean lagun eta senitarteko ugari bildu zen. Amaitutakoan luntxa zuten denek zain San Migel Goiangerua elizaren klaustroan.



LARRAITZ ZEBERIO

## Hiltegia Mankomunitateak kudea dezan mozioak aurkeztu dituzte udaletan

M.B.

Ibarreko abere ustiatagietako jabeek mozioa aurkeztu dute Arrasateko eta Oñatiko udaletxeetan Zubillagako hiltegiaren harira. Arrasateko mozioa herriko 52 ustiatagietako jabeek sinatu dute; Oñatikoa, berriz, 161ek. Sinatzaileen esanetan, ibarreko gainerako udalerrietan ere aurkeztuko dituzte mozioak.

Mozioan eskari garbia egiten dute sinatzaileek: Debagoieneko Mankomunitateak jarrai dezala hiltegiaren zerbitzua eskaintzen eta kudeatzen. Eskari hori egiteko honakoa azaltzen dute sinatzaileek: Alde batetik, “hiltegia

udalaren beraren eskumena den zerbitzu publiko bat dela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 25.2 artikulua arabera”. Eta bestetik, “hiltegia funtsezko zerbitzua dela Araubide berak arautzen dituen Legearen 86.3 artikulua arabera”.

Bestalde, herri plataformek bidalitako prentsa oharrean, gogorarazten dute apirilaren 30a dela Mankomunitateak emandako mugaeguna hiltegiaren etorkizunaz hartzeko den erabakiaren berri emateko. Horrekin batera, hiltegia mantentzearen aldeko jarrera berretsi egiten dute; baita osoko bilkuretan hori defendatuko dutela esan ere.



AINTZANE AGIRRE

San Migel Goiangerua eliza jendez lepo egon zen. Asko kanpoan gelditu ziren.

## Min handia Oñatiar gazteen aldeko hileta elizkizunean

Larraitz Zeberio

Asteazkenean auto istripuan hildako lau oñatiar gazteen alde bariku iluntzean egindako hileta elizkizuna gogorra izan zen benetan. Donostiako Elizbarrutiko gotzain Joan Maria Uriartek eman zuen meza: “Hemen gaude guztiok hunkiturik, eta harri eta zur, jota, gertatutakoa

irentsi ezinik, malkotan galdezkara nola liteke?”.

Herritarrak, lankideak, ikaskideak eta adiskideak izan zituzten lagun Amaia, Ane, Mikel eta Aitorren senitartekoek azken agur honetan. Bertan izan ziren, besteak beste, Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburua, Inaxio Oliveri MUko errektorea eta Jesus Catania MCCko presidentea.

Mazda6. Kirol zaletasuna.



Bikar

**M MENDIOLA**



San Andres 10 D · Tel.: 943 77 21 00 · ARRASATE

mazda



# *Eraman dotoretasuna zure etxera*



**gelatza s.l.**

Zubillaga auzoa 1  
**OÑATI**

Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51

*Yo no soy español* liburua idatzi zuen 1999an, Kataluniako hainbat pertsonaia ezagunekin izandako elkarrizketak batuz; bere buruari ere egin zion elkarrizketa

bera, liburuaren amaieran. Espainian ez, baina Katalunian izugarrizko arrakasta izan du; 9. edizioa kaleratu berri dute, 30.000 bat ale saldu ditu eta orain, filma egin nahi

dute. Eguenean Arrasatera etorriko da hitzaldia egitera: *Euskal Herria bidegurutzera. Ikuspegi suspergarri bat Kataluniatik*; 19:00etan Monterronen.

VICTOR ALEXANDRE | KAZETARIA, IDAZLEA ETA INDEPENDENTISTA KATALUNIARRA

# "Euskaldunek eta katalanek elkarren antzeko gauza bera dugu: etsaia"

Marijo Deogracias

## Espainiarra zara?

Ez, ez naiz espainiarra; ez naiz inoiz izan eta ez daukat identitatez aldatzeko asmorik.

**Ni ez naiz espainiarra ez dut uste lau haizetara zabaltzeko baieztapena denik; hala gaur egun aldarreak laguntzen du?**

Munduko edozein lekutan espainiarra ez naizela ezin esan izateak, munduko leku hori ez dela normala erakusten du. Espainian espainiarra ez zarela esateak beste herrialde baten jaio zarela esan nahi du. Euskal Herria eta Kataluniako Herrialdeak ez direnez Espainia, erabat normala da herri horietan espainiarra ez zarela esatea.

**Aldarteaz ari garela, Katalunian badago nahikoa aldarreak espainiarrenak hala aitor dezan?**

Espainiarrak ez direnez onartzen dute badirela Katalunian ere, beste herrialde baten parte direla sinistuta dauden eta espainiar sentimendua garatu duten herritarrenak –mendeetako garun-garbitzetaren ondorioz–. Hala ere, espainiar ez direnez izaten dituzte arazoak; besteek babesten dituen estatua daukate.

**Kataluniar izaera erabiltzeko eskubidea aldarrikatu duzu. Zer ulertu behar dugu?**

Eskubide nazionalak, identitateak, onartzen ez dieten herri guztiak saiatzen dira euren izaera propioa aldarrikatzen.

**Esan izan duzu "erasotzailearekiko menpekotasun emozionalarekin apurtu ezean" ez dela independentziarik egongo.**

Tratu txarren egoerarekin konparaketa eginez ulertzen da: erasotzailearekiko menpekotasunean tratatu txarrak jasan dituzten emakumeek autoestimua galtzen dute, beren kabuz ezer ezin dutela egin sinisteraino. Erasotzailearekiko dependentzia emozionala garatzen dute. Hau bera gertatzen zaie herriei eta kolektiboei. Herri baten menpe hain-


beste denbora egiten duen bigarren herri batek, dudan jartzen du bere erabakitze ahalmena. Euskaldun eta kataluniar askok duten autogorrito edo autoestimua baxua, dependentzia emozional horren ondorio da.

**Rovirak ETArekin izandako elkarrizketaren eragin mediatikoaz ere idatzi duzu liburua. Rovira indartua atera zela uste duzu?**

Rovira kargutik kendu egin zuten eta oso larria da hori. Konplexu bako ikuspuntu nazional batetik, Katalunia nazioa da eta erakutsi egin behar du. Elkarrizketa hura horretarako aproposa izan zen, baina Katalunian klase politikoak ez zuen ezer egin; erregio bat legez jardun zuen. Onartezina da erabat, sasoi hartan oraindik politikoki inor ez zen beste herrialde bateko jauna batek –Zapaterok– beste herri bateko lehendakariari –Maragalli– herrialde horretako lehen ministroa –Rovira– kargutik kentzeko eskatu izana. Eta harrigarriena da kasu egin ziola eta agerian geratu zela Kataluniako presidentearen Espainiarekiko menpekotasun absolutua.

**Zer leporatu zioten Rovirari?**

Espainiaren arazoa ez da Carod, baizik eta berak egin zuen keinua. ETArekin berba egitea, Katalunian azkeneko urteetan



Victor Alexandre Arrasatera etorriko da egunean hitzaldia egitera.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

egin duen subiranotasun keinurik garrantzitsuena izan da. Herrialde bateko lehen ministroak, talde armatu batekin hitz egin ostean, herrialde horretako tregua lortzea, herrialde normal baten, garaipena da. Beraz, nire ustez, Rovira politikoki indartuta atera zen.

**Nola hartu zuen jendeak *Yo no soy español* liburua?**

Espainian itzelezko porrota izan da. Ulertzen dut izenburuak espainiarrei enbarazu egitea; nik neuk ez dut ezagutu nazionalista espainiarra ez den espainia-

rrik. Katalunian, bestalde, oso oso ondo joan da. Udazkenean filma egiten hasiko da Francesc Bellmunt zuzendaria. Liburuan baino pertsonaia gehiago agertuko dira, baina ez da *La pelota vasca* izango. Esan nahi dudana da, *La pelota vasca* filman alde bietako iritziak jaso zituela Medemek, baina gurean ez. Jendearen autoestimuari jaten ematea da helburua. Filma erabat partziala izango da eta kontrakoa pentsatzen duenak egin dezala bere filma. Euskal Herrian harrera ona izan du. Inaki Anasagastik dagoeneko eskatu dit nirearen haritik egiten ari den bere liburuan hitzaurrea idaztea –*Somos vascos*–; jakina light izango da, EAJkoa delako. Aldiz, Angel Rekalde egiten ari dena ezker-tirragoia izango da eta hari ere hitzaurrea nik egingo diot.

**Zein litzateke euskal gobernuren osaketa?**

Kataluniatik naturala litzateke EAJ-EHAK hitzarmena, baina ez da kontuan hartzen bien artean alde handia dagoela. Kontuan hartu behar da Ibarretxe asko miresten dela Katalunian, batez ere, Espainiako kongresuan erakutsi zuen duintasunagatik; Maragallek ez zukeen hori

inoiz egingo. EAJ eta beste indar abertzale guztien arteko hitzarmena, euren artean alde handiak daudela onartuta ere, herrialdea nazio bat dela argi daukatenean arteko hitzarmena litzateke.

Harritzen nauena Euskal Herrian zera da: nazionalismo bat eta konstituzionalismo bat daudela onartzea. Ez dut ulertzen alde bateko nazionalistak daudela onartzea eta beste aldekoak daudela ez onartzea. Euskal Herriaren batasuna defendatzea jarraera nazionalista bada, Espainiaren batasuna defendatzea ere jarraera nazionalista da; hortaz, bi nazionalismo daude. Inoiz ez dut ulertu inork bere buruari 'ez-nazionalista' deitzea. Ez da horrelakorik onartu behar. Gol psikologiko oso indartsua da. Hau esaten dituztenean euren burua 'normal' legez definitzen ari dira eta aldi berean zu 'anormala' zarela, baina toleratzen zaituztela esaten ari dira.

**Kataluniarrek eta euskaldunek zer daukagu elkarren antzeko?**

Hasteko, etsai bera daukagu. Bestalde, desira berdina ditugu eta nire ustez elkarrekin lortu beharko genituzke.

Elkarrekin ahalmen itzela daukagu.

**"Euskaldun eta kataluniarrek autoestimua baxua dute dependentzia emozionalagatik"**

**"Nik neuk ez dut ezagutu nazionalista espainiarra ez den espainiarrik"**

**"Katalunian egin duen subiranotasun keinurik garrantzitsuena izan da Rovirarena"**

**"Espainiaren batasuna defendatzea ere jarraera nazionalista da"**



## Albiste izango da

BERGARA | MUGAEGUNA MAIATZAREN 3A DA

### Jardunek 15. urtemuga irudikatzeke logotipo lehiaketa deitu du

Bergarako Jardun Euskara Elkartek 15 urte beteko ditu maiatzean. Horren harira, urtemuga irudikatzeke logotipo lehiaketa deitu du. Bergarako edonork har dezake parte, bi mailatan banatuta: 12 urtetik beherakoak eta 12 urtetik gorakoak. Logoan 15. urteurrena eta *Jardun* hitzak azaldu beharko dira. Bestalde, teknika librea da eta zuri-beltzean zein koloretan aurkeztu ahal izango dira, folio tamainako kartulina zurian. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 3a da eta helbide honetan aurkeztu beharko dira: Jardun Euskara Elkartea, Errotalde jauregia (kultura etxea).

ESKORIATZA | 18:30EAN, UDALETXEKO BATZAR GELAN

### Iraunkortasunerako Toki Foroa aurkeztuko dute bihar, martitzena

Tokiko Agenda 21 prozesua aurrera eramateko asmoz, Iraunkortasunerako Toki Foroa aurkeztuko dute bihar, martitzena, 18:30ean, udaletxeke batzar gelan. Prozesuaren lehenengo urratsa izango da eta herritarrei, eta bereziki, herriko taldeei zuzenduta dago. Batzarraren edukia honakoa izango da: Tokiko Agenda 21 eta Udaltalde 21 Debagoiena aurkeztuko dituzte eta Eskoriatzako ingurumen, gizarte eta ekonomia arloetako diagnosiaren berri emango dute. Tokiko Agenda 21ek udalerriaren esku-hartze prozesu bat hastea du helburu, udal kudeaketa egokitzeko, udal koordinazioa sustatzeko eta herritarren parte-hartzea bultzatzeko. Beti ere, iraunkortasunaren kontzeptua oinarri duela.

OÑATI | APIRILAREN 26, 27 ETA 29AN

### Oñatieraren gaineko jardunaldiak egingo dira zinean eta Santa Anan

Mikel Aozaraza ikastetxeke eta Santa Eskolastika ikastetxeke Elkar Hezik "Oñatieraren inguruko lehenengo jardunaldiak" antolatu dituzte datorren asterako. Martitzenean, Xabier Kintana eta Jurgi Kintana arituko dira "Euskararen jatorria eta bilakaera historikoa" izeneko berbaldian, kultura etxeke zine aretoan, 19:30ean. Eguaztenean, Asier Sarasuak, Gerardo Elortzak eta Roberto Altunak "Deba Ibarreko azpieuskalkien inguruko gainbegiratu. Gure azpieuskalkiaren, oñatieraren, ezaugarriak. Grafiaren auzia. Oñatiera baturik, bai ote?" berbaldia egingo dute, leku eta ordu berean. Barikuan Santa Ana Antzokiak hartuko ditu jardunaldiak. Paulo Agirrebalzategi eta Pello Zabala arituko dira Kandido Izagirre, Luis Villasanten eta Bitoriano Gandiaga eta oñatieraren gainean, 19:30ean.

BERGARA | HIRU KATEGORIA EGONGO DIRA

### Ipintzako futbol txapelketarako izenematea zabalik dago

Hiru kategoria egongo dira: emakumezkoak, adin mugarik gabekoa eta beterranoak. Emakumezkoen kasuan, maiatzaren 16ra arte dago zabalik izenematea, Ipintzan bertan. Gero, maiatzaren 21ean, batzarra egongo da Ipintzan, 12:30ean, jokalaririk gabekoak diru kopurua ordaintzeko. Adin mugarik gabekoak kasuan (gutxienez 16 urte izan behar dira), maiatzaren 16a da mugaeguna eta batzarra maiatzaren 21ean izango dute, Agorrosinen. Beteranoetan, maiatzaren 18a da mugaeguna eta batzarra hilaren 21ean izango dute horiek ere.

ARRASATE | 18:30EAN IZANGO DA, MONTEIRONEN

### Euskalan elkarteak batzar orokorra deitu du bihar, martitzena

Lan arloan euskararen erabilera eragiteko Euskalan elkarteak batzar nagusia egingo du martitzenean, Arrasateko Monterron jauregian. Debagoieneko enpresetan euskararen presentzia areagotzeko dauden egitasmoen berri emango dute batzarrean, bai eta 2005-2008 bitarteko arteko plan estrategikoa aurkeztu ere.


Batzar nagusia izanik, zuzendaritza batzordea ere berrituko du AED, Arizmendi, Arrasate-Aretxabaleta BHI, Arrasateko Herri Eskola, Arrasateko Udala, EHE, Ekin Emakumeak, EMUN, Erdu-AEK, Euskalan elkartea, Goiena, Mesedeetako Andra Maria ikastetxea eta Txatxilipurdi elkarteek osatzen duten elkarteak.

## Hitzorduak

### BERGARAKO JAIK | Mendekosteen inguruko zenbait hitzordu datozen egunotarako

Mendekosteetako jai egitaraua gertu dago, eta horren berri emango die herritarrei bihar, martitzena, kultura etxean, 19:00etan. Koadrila, tabernari eta interesa duten guztiei dei egiten die batzarrera joateko.

Bestalde, aurten berritasuna da bikoteen arteko latindar dantza lehiaketa. Maiatzaren 6an bukatzen da izenemate epea. 600 eta 300 euro eta afari bat emango dituzte saritan. Sukaldaritza lehiaketa, berriz, urteroko hitzordua da. Horretarako izenematea maiatzaren 3an amaituko da. Lehiaketetarako izenematea kultura etxean egin behar da, edo 943 77 9158 telefonora deituta.



### ANTZUOLA |

• **Larrialdien gaineko jardunaldia ikastetxean**  
Larrialdien gaineko jardunaldia izango da eguenean, hilak 28, ikastetxean, 18:00etan. Arnasbidea tratatzen denean zer egin irakatsiko du Oihana Jauregik. Doan da.

### ARETXABALETA |

• **Lourdesera joateko izenematea zabalik dago**  
Gaixoen erromesaldia deitu dute maiatzerako. Parrokiak maiatzaren 21 eta 22rako antolatu du bidaiaria. Izenematea zabalik dago, sakristian.

• **Pilates eta spinning ikastaroak antolatu dituzte**

Pilates gimnasia eta spinning ikastaroak antolatu ditu Zaindiz gimnasioak. Pilates gimnasiaren beste ikastaro bat antolatu du, orain arteko arrakasta dela eta: martitzen eta eguenean, 19:30ean. Spinning ikastaroa, bestetik, apirilaren 26 eta 28an eta maiatzaren 3an izango da, 17:00etan. Argibideak, 943 71 27 92 telefonon.

### ARRASATE |

• **Bihotzaren osasunaren inguruko hitzaldiak**  
Bihotzaren osasunaren gainean berba egingo du Alberto Rodriguez medikuak eguaztenean, apirilak 27, eta eguenean, 28, Monterronen, 16:30ean, Eroskiren Kontsumitzailearen Eskolaren barne.

• **Arrasate Institutuaren ate irekien jardunaldia eguenean**  
Arrasate Institutuak ate irekien eguna deitu du hilaren 28an, eguna, 18:30ean, Batxilergoko aurrematrikulazio epearen barnean. Epe hori zabalik dago maiatzaren 6ra bitartean, institutuko idazkaritzan.

• **Finantza erakundeekin eragiketak zelan egin**  
Finantza erakundeekin eragiketak zelan egin azalduko du Miramon Enpresa Digitalak eguenean, hilak 28, Goi Eskola Politeknikoan, 18:00etan.

### BERGARA |

• **Musika Eskolak izenemate epea zabaldu du**  
Euren bulegoan eman behar da izena, astegunetan, 15:30-19:30.

### DEBAGOIENA |

• **Maiatzaren 1eko ekintzak antolatu ditu CNTk**  
CNT Gipuzkoak dei egiten die debagoiendarrei maiatzaren 1eko ekitaldietan parte hartzera: mitinak, preso anarkisten omenezko bilkurak... Argibideak, [www.cnt.es/gipuzkoa](http://www.cnt.es/gipuzkoa) webgunean, 943 37 08 97 telefonon edo [gipuzkoa@cnt.es](mailto:gipuzkoa@cnt.es) helbidean.

• **Hiru ikastaro antolatu ditu Gurutze Gorriak**  
Lehen sorospena, uretako sorospena eta geriatría ikastaroak deitu dituzte, eta izenematea zabalik dago honako telefonon: 680 64 80 14.

### ELGETA |

• **Ardo-dastatzea izango da eguenean, hilak 28**  
Ardo-dastatzea izango da Espaloia antzokian, 20:00etan.

### ESKORIATZA |

• **Haur Hezkuntzako gurasoei zuzendutako hitzaldia**  
*Nola aurre egin agresibitate egoneari* delako hitzaldia antolatu du Arizmendiko Guraso Eskolak biharko, martitzena, Jose Arana gunean, 18:00etan.

• **Elikaduraren inguruko hitzaldia etzi, eguaztena**  
Elikaduraren inguruko hitzaldia egingo du Laura Alutiz dietistak kultura etxean, 18:30ean, Amuskak antolatuta.

• **Helduak haurrekin liburuak konpartitzearen garrantzia**  
Hitzaldi hori egingo du Pello Añorgak eguenean, hilak 28, liburutegian, 18:30ean.

### OÑATI |

• **Arauk eta mugak delako hitzaldia Elkar Hezin**  
HHko eta LHko 1., 2. eta 3. mailako ikasleentzako aita-amendako hitzaldi hori egingo du Eraberri taldeak eguenean, hilak 28, Santa Eskolastikan, 19:00etan.

• **Hitzaldia egingo du Kike Amonarriek**  
*Euskararen kalitatea: zertaz ari garen, zergatik eta zertarako* delako hitzaldia egingo du Kike Amonarriek etzi, eguaztena, Txantxiku Ikastolan, 18:30ean.

# Iritziak



## Isilpekoak

**943 76 92 71**  
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

### • Semaforo luzeegiak

Bergarako kaleko semaforoen kontura idatzi digu irakurle batek. Txaloak barik txistuak bidali dizkigu, Herri Lagunak kaleko semaforoaren kontura. Autoentzako berde aukera oso denbora laburrez egoten dela eta, kexa erakutsi digu: "Joan zen egun goizean, 09:04ak aldera, azoka plazan autoa aparkatzeko asmoz, Poligonotik sartu nintzen bertaraino. Lekurik ez zegoenez, Herri Lagunak kalerantz egin nuen -Elementalerantz- eta 15 minutu egin nituen autoan geldi, semaforora iritsi arte. 4 aldiz jarri zen gorri semaforoa! Badakit bidegurutz horretan 3 semaforo daudela, eta bakoitzak bere denbora behar duela, baina, hala ere, nola daiteke 15 minutu behar izatea azokatik Elementalera?"

### • Edukiontzia errespetatu

Arrasatetik txistuak bidali dizkigute domeka goiz askotan herriko edukiontzia lurrean botata agertzen direla eta. Gure irakurle batek aditzera eman digunez, "igande goiz askotan ikusi izan ditut, herriko leku askotan, edukiontzia bere lekutik mugituta eta horietariko asko lurrean botata. Egun osoa ematen dute, kasu askotan, edukiontzien lurrean botata, inork ez dituelako bere lekuan jartzen. Txistuak bidali nahi dizkiet alde batetik, igande goizaldeetan, beste ezer egitekorik ez dutenei, denon zerbitzurako diren edukiontzia horrela erabiltzeagatik; bestetik, txistuak bidaltzen dizkiet Arrasateko agintariei, horrelako jokabideen kontrako neurriak ez hartzeagatik eta edukiontzia ez jasotzeagatik. Badakit igandea, askorentzako, atsedean eguna izaten dela, baina ez dago eskubiderik. Aukeran, edukiontzia, lotuta jarri beharko dira, leku aldapatsuetan egiten duten antzera".

## Sarean harrapatuta

### Zer egingo zenuke Venta Friako etxean?

Ezaguna da gatzagarrentzat zein ibarrekoentzat Gatzaga gainean dagoen Venta Friako etxea. Denbora dezente darama itxita garai batean Venta Fria jatetxea izan zenak, eta eraikin ederra da. [Goiena.net](http://Goiena.net)-

eko Gatzagako atalean galdera hau egin dute: Zer egingo zenuke salgai dagoen Venta Friako etxean? Ideia asko bota dituzte gatzagarrek eztabaidan, ea norbait animatzen den ideia martxan jartzen.

### HERRIKOENTZAT LOKALAK

Sasoi batean entzun ziren zurrumuru batzuk zerbait egin behar zutela, baina ez da ezer egin. Egia esan, sekulako lokala da eta lekua ere ez da txarra. Baina, autopista egiten dutenean zenbat jende pasatuko da hortik? Udaletxeak erosi eta herrikoentzako lokalak egin ditzala.

Teo / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### MUSIKA ONA JARTZEN DUTEN DISKOTEKA BAT

Nik diskoteka bat egingo nuke. Hor ez da egongo inoren kexarik: parking handia, leku paregabea... Itziariko Txixarro bezala, baina *bakalao* musikaz gain beste publiko batentzako aukera ere jarriko nuke. Eta kontzertu onak, noski, Jam-en egiten dituztenen modukoak!

Proiektu / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### GIPUZKOA EZAGUTZEKO ERAKUSKETA BIRTUALA

Gipuzkoarako sarrera dela kontuan harturik, nik Gipuzkoako museo edo erakustoki on bat egingo nuke. Pertsona askok ez dute astirik Gipuzkoa guztia ezagutzeko eta bisitaldi birtual bat eskaini daiteke. Nik Gatzagako alkateari Norvegiako Bergen hirira joateko esango nioke, bertan Norvegia birtual

### KONTZERTUETARAKO ARETO ON BAT

Gipuzkoako Foru Aldundiari dirua eskatu eta segituan egingo genuke zerbait. Adibidez, izugarriko antzokia edo aretoa kontzertuak egiteko. Baina kontzertu onak jarriko nituzke, musika zikinik ez, mesedez. Nazioarteko taldeak eta munduan ezagunak direnak ekarriko nituzke; Bergarako Jam aretoa bezalako zerbait egingo nuke, baina gure herrian, Leintz Gatzagan, mendiaren eta naturaren artean. Gauza orijinalagorik ezin da egin! Gainera, aparkalekua badago, taberna bat ere badago inguruan, zer gehiago eskatu daiteke bada?

Chow / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### PAINTBALLERAKO ZELAIA JARRIKO NUKE

Pijoak eta ibarreko estresatuak erakartzeko hau ona izan daiteke. Erriflearekin margoa botatzen egiten dituzten gerra horientzako lekua jarriko nuke.

Basoa badago horretarako. Negozioa egin daiteke hamarretakoak, bazkariak eta meriendak Gatzagan egiten badituzte. Bazkari bat eta Gatzagako produktu bat erosten badute gainera askoz hobeto.

Pijuentzat / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### BIDAIAIENTZAKO INFORMAZIO GUNEA

Gero eta bidaiari gehiago dagoenez, nik bidaiatzeko ezinbestekoa izango den etxe bat egingo nuke. Hau da, mundu guztiko ibilbideak bertan jarriko nituzke. Bizikletaz, motoz eta oinez ibiltzeko munduan dauden ibilbideen erakusketa bat. Argazki aretoa, liburutegia, munduko erakusketak, jendearen esperientziak, ibiltari zentro bat bidaiak antolatzen... Horiek guztiak bilduko lituzke.

Euskaldunok gero eta gehiago bidaiatzen dugunez, bidaiari bat egin nahi dugunean ezinbestekoa izan dadila Gatzagara joatea ahalik eta informazio gehien ateratzeko.

Bidaiarien / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

baten erakusketa oso ona baitago, ikusi dudak erakusketarik onena. Ideia oso onak ekar ditzake bertatik. Eta gatzagarrik hain ondo egiten ari diren turismo erakartzeko lana sendotu lezake horrelako gauza batek.

Kanpotar bat / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

## Halaxe erantzun digute

'Itzali telebista astea 2005' egingo da maiatzaren 1era bitartean. Zer nolako harrera izango duela uste duzu



JM. VELEZ D. MENDIZABAL | TELEBISTA IKUSTEARI UTZI DIO

Teknologia ez da txarra. Erabile-ra okerrak gaiztotzen du. Arazoa ez da TB, kateek luzatzen diguten eskaintza eta modua baizik. Informazio inkontrolatuak askatasuna kamustu egiten digu. TB-rik gabeko asteak arrakasta edukiko du... programazioa zintzoarazteko bidea luzea izan arren.



XABI AZKARATE | TELEBISTARIK EZ DU ETXEAN

Ez dut uste kasu handirik egingo dionik jendeak horrelako ekimen bati; bestelako "egunen" gainean, kontzientzia badago, baina telebistakoaren gainean ez dut uste dagoenik. Nik neuk etxean ez daukat telebistarik, baina, izanez gero, seguru asko, gustuko ez ditudan saioak ere ikusiko nituzke.



EDORTA ARANA | TELEBISTAN ADITUA

Programatzaileek audientzietekin baino gehiago programak geure bizi-ohituretan txertatzearekin amesten dute; egiten ditugun gauzen artean jartzea telebista. Hau bezalako ekitaldiek autonomia apur bat errekuiperatzeko balio dezakete, egiten dugunaren kontzientzia berreskuratzeko.



OIHANE AGIRRE | GOITB-KO ARDURADUNA

Telebistek egun hauek iragarri ere ez dituztenez egingo, ez dut uste jende asko enteratu ere egingo denik. Zentzurik ere ez diot aurkitzen horrelako egun bereziak antolatzeari; zer gertatuko litzateke benetan astebetetz telebista seinalea eten eta ikusteko aukerarik ere ez bagenu izango?



## Egunkarietako harribitxiak

**BI GURPILEN SUKARRA**  
Motozikleten matrikulazioak nabarmen egin du gora. Autoaren gidabaimena motoarendako ere baliagarri denetik egin dute gora matrikulazioek. Halaxe jaso zuen atzo *Deia* egunkariak erreportaje batean. Aurten, hileko, 200 moto matrikulatu dituzte batez beste; iazko bikoitza.



'Deia'  
2005-04-24

**SEI MILA LANGILE HILTZEN DIRA EGUNERO**  
Izenburu horrekin ireki zuen atzo *Gara* egunkariak Igandeko Geltokia sailaren erreportaje nagusia. Datorren eguna, apirilaren 28a, Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Eguna da eta segurtasuna eta osasuna aldarrikatzeko ekimenak egongo dira. Nazioarteko Lan Erakundearen arabera, egunean 6.000 langile hiltzen dira munduan segurtasun

neurri faltagatik; 2,2 milioi urtean. Hego Euskal Herriari dagokionez, 2.383 langile hil ziren 1988 eta 2004 bitartean lan istripuetan; Europako Batasunean, 7.500 inguru hiltzen dira urtean; Espainiako estatuan, 1.400 eta Frantziakoan, 661. Sindikatuek mobilizazio soziala deitu dute egoera larri hori geldiarazteko.

'Gara'  
2005-04-24



## Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2005-IV-24

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'El Diario Vasco'

REALAREN ONERAKO

Gaur egungo administrazio kontseiluak oraintxe dauka aukera Realarentzat onena nahi duela erakusteko. Erreleboa laga besterik ez du egin behar eta erabaki estrategikoak hartzeari ere laga. (...) Realeko jokalarari eta entrenatzaile ohien batzordeak eskatu dio asteon administrazio kontseiluari hauteskundeak aurreratu ditzala.

Editoriala  
2005-04-24

### 'El Pais'

ISTILUA ESTRATEGIA BEZALA

Ez da onargarria bederatzita milioi eta erdi boto dituen alderdiak eta gobernatu izan duenak, behin eta berriz, PSOEren garai-pena ilegítimo bezala aurkeztea; etengabe zalantzan jartzea justiziaren independentzia, gobernuari leporatzea ETA parlamentura eraman izana, terrorismoaren biktimei halako erabilera ematea...

Editoriala  
2005-04-24

### 'El Mundo'

BIKOIZKETA DEKRETUZ

ERCk bere aldarrikapen linguistikoak inposatu nahi ditu gobernuaren prestakuntza ari den ikus-entzunezkoen legearen tramitazioan. PSOE honakoa onartzekotan da: lege horrek behartuko luke Espainian banatzen diren filmak katalanera bikoiztea eta seguru asko estatuko gainerako hizkuntza koofizialtara ere bai. (...) ERCren asmoa disparetea da.

Editoriala  
2005-04-24

### 'Gara'

NAFARROAREN EGUNA

Egun bat baino gehiago behar da euskaldunak banatu dituzten era guzietako mugak gainditzeko. Errealitate horren jakitun dira aurtengo Baigorriko ekitaldiei begira lanean aritu diren mugaz bi aldeetakoak. Elkar ezagutzeko, ulertzeko eta komuneko dauden arazo sozialak konpontzeko esperientziak trukatzea izan dira ezarritako irizpideak.

Editoriala  
2005-04-24

## Zorroztailea

### Disseny etxeak vs. Disney etxeak



*Guztiok ondo ezagutzen dugun etxebizitzaren arazoak bere horretan segitzen duela berresten duten datuak dira. Egoera horri aurre egiteko bide batek eztabaida sortu du egunotan. Miniapartamentuak, mikroetxebizitzak... 20-30 m<sup>2</sup> inguruko etxebizitzak berri jaso dugu.*

'Goienkaria' | 2005-04-22

Jota Jota Arrieta

Arazoa zen. 'Arazo handia baliabide txikiarekin konpontzen da'. Maisu itsuak Matxinsalto Txikiari botatako parida Zen bat dirudi. Ez da horrela baina. Neuk asmatutakoa da. Neuri etorri zait. Inongo ikastaro arrarorik egin behar izan gabe gainera. Zein pentsamendu borobil eta sakon bota daitezkeen egunkariak dakartenei apurtxo bat erreparatuz gero.

Kontua da etxebizitzaren arazo konpontzeko mikroetxebizitzak proposatu dituztela. Badu logika, txikiagoak izatean merkeagoak izango dira; beraz eskuragarriagoak. Akabo, orduan, arazoa!

Zen arazoa. Eskualdeko hiltzearen alde azaldu nintzenetik lagunak egin ditut harakinen eta abeltzainen artean eta batek zera

esan dit, gehiago irabazten dela behia zati txiki askotan salduta, oso-osoan salduta baino. Harra-pazak hori, Matxinsalto! Beraz, esan diot, mikroetxeena ez da arazo konpontzea, arazoari aurre egitea baizik. Hala da, hizkuntza teknikoan, produktu berari erantsitako balioa gehitzeko modua, erantzun dit berak. Lur zoru bera garestiago egiteko modua, espekulazioa, nik. Bai, hala da, berak.

Arazo ohia. Ia-ia arazoa. Lur zoruaren espekulazioak ez du tokirik azken hauteskundearen emaitzak ikusita.

Propaganda kartel gorriak zituzten guztiek gora egin dute hauteskundeotan (IU-EB izan ezik), beraz ez luke harritzekoa izan beharko legealdi honetan onartzea lur zoruaren legea. Ala gorriak kartelak besterik ez ziren?

**"Etxebizitzaren arazo konpontzeko mikroetxebizitzak proposatu dituzte. Badu logika, txikiagoak izatean merkeagoak ere bai"**

**"Harakin batek esan dit gehiago irabazten dela behia zati txiki askotan salduta, oso-osoan salduta baino"**

# KIROLA

- Eskoriatzako nesken saskibaloit taldeak kostata irabazi zuen Pinturas Estecoren kontra | 19
- Jonathan Perezek Euskadiko Kluben arteko Txapelketan garaipena lortu zuen | 18

Mendi bizikletako Euskadiko Openean Iñigo Roldan aretxabaletarra laugarren | 21

## FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

ATHLETIC

1-3

SEVILLA

**Athletic** | Arantzubia, Cesar, Murillo, Lakruz, Del Horno, Gurpegi, Tiko (Guerrero 63. min.), Etxeberria (Solabarrieta 81. min.), Yeste, Ezkerro eta Urzaiz (Llorente 63. min.).

**Sevilla** | Notario, Alves, Sergio Ramos, Prieto, David, Marti, Jesus Navas, Jordi (Casquero 84. min.), Adriano (Jesuli 70. min.), Baptista eta Makukula (Dario Silva 54. min.).

**Golak:** | 0-1 Baptista. 0-2 Jesus Navas. 0-3 Baptista. 1-3 Guerrero.

**Epailea** | Rubinos Perez. Sevillaren partiduak epaitzea zaila izaten da. Joko zikina egon arren, ondo moztu zituen txartel bidez.

**Bestelakoak** | Partidu hasieran Athleticen neskek superliga irabazteagatik merezitako omenaldia jaso zuten. Ez zen zale asko egon San Mamesen, baina tartean bazegoen Debagoieneko peña bat, Bergarako Athleticeneko peña, hain zuzen ere. Ez zuten zorte handirik izan.

### Bikain

#### Guerrero

Minutu gutxi jokatzen ditu kapitain handiak, baina jokatzen duen gehienetan gola sartzen du. 196 minutu jokatu ditu denboraldi honetan eta dagoeneko hiru gol daramatza Julenek.

### Kaskar

#### Urzaiz

Ez dabil fin tuterarra. Denboraldi hasieran gol asko sartu zituen eta badirudi ahaztuta duela gola sartzea zer den. Notariok ere izan zuen gola ez sartzearen kulpazati handi bat.

### Esandakoak

“Garaipena lortzea urrezko aukera bat zen guretako, Txapeldunen Ligako postuetara asko gerturatuko ginateke eta”.

ERNESTO VALVERDE | ENTRENATZAILEA

“Gure taldearen izaera ikusi da gaurko partiduan, jokalaria gazteek konfiantza izan dezakegula erakutsi digute”.

JOAQUIN CAPARROS | ENTRENATZAILEA



ARGAZKI PRESS

Baptista brasildarra kate motzean lotzeko piztia dela erakutsi zuen beste behin ere; izan ere Athleticen askotan jaso du pizti horren ondorioa.

ATHLETIC | EGONDAKO EMAITZAK IKUSITA PENA HANDIA DA HIRU PUNTUEK ALDE EGITEA

## Baptista, pizti beltza, San Mamesetik paseatu zen



Jon Unamuno

Zoriontasuneko gaua zorigaiztoko bihurtu zen minutuak pasa ahala. Eskerrak Guerreroren golarekin pozik egoteko arrazoi batekin gelditu ginen.

Athleticeko neskek euren omenaldia jaso ondoren, Txapeldunen Ligan sartzeko pos-

*Arantzubiaren aurrean efikazia altua erakutsi zuen Sevillako taldeak eta Athleticen aurrelarien ezintasunak eta Notarioren geldiketek porrota ekarri zuten*

tuetara gerturatzekeo partidu baten aurrean aurkitzen zen Athletic. Hala ere, hasieratik ikusi zen pizti arriskutsu bat lehoi artean zebilela eta partidu amaieran pizti arriskutsuak, hiltzailea zela erakutsi zuen. Baptistak zabaldu zuen Sevillako marka-

gailua seigarren minuturako. Urzaizek izan zuen berdintzeko aukera, baina Notariok erantzun ezin hobea eman zion. Hogeigarren minutuan Jesus Navasek bigarren gola sartu zuen; azken emaitza bideratu zuen gola. Athletic saiatu zen susperraldia iza-

ten, baina aurrean ez ziren fin ibili aurrelariak. Bigarren zatian Baptistak bere bigarren gola sartu zuen eta sevillaren garaipena ziurtatu zuen.

### GUERREROREN GOLA

Ezer ospatzerik ez zegoela uste genuenean, Guerreroren gola heldu zen eta kapitainaren golak desberdinak direla argi dago. Orbaizen falta ere asko sumatu zuen Athleticen atzokoan. Gaur egun bera da taldea oxigenatzen duen jokalaria eta jokatzen ez duen bakoitzean taldeak asko nabaritzen du.

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

• URZAIKI KONTRATUA BERRITUKO ZENIOKE?



TERE ETA JON |  
LEGAZPI

“Urzaiz zahartzen dabil eta errioxarrari minutu gehiago eman behar zaizkio”

“Urzaiz dagoeneko zahartzen dabil, eta Athleticen harrobiarekin lan egin ez jakolariak atera beharko lituzke. Llorenterekin hori egin dute, eta gure ustez, errioxarrari minutu gehiago eman behar zaizkio”.



JOSEBA |  
ARETXABALETA

“Hemengo jokalariai zaindu egin behar dira”

“Nik berrituko nuke. Hemengo jokalariai zaindu egin behar dira. Hala ere, Llorenteri minutu gehiago eman behar zaizkio”.



BITERI ETA URRETA |  
ARETXABALETA

“Guk uste egokiena kontratua berritzea dela, nahiz eta diru asko eskatzen duen”


“Uste dugu egokiena kontratua berritzea dela, nahiz eta diru asko eskatzen duen. Egia da Llorenteri minutu gehiago eman behar zaizkiola, baina Urzaiz oraindik jokatzeko moduan dagoela uste dugu”.



ASIER, IKER, HARITZ ETA EGOITZ | OÑATI

“Diruz gaizki badabiltza, ezin dute kluba Urzaizengatik hipotekatu”

“Ez liokete kontratua berritu behar. Horrela jende gazteari bultzada handiagoa emango litzateke. Gainera, Fernando Llorentek nafarraren ezaguerri antzekoak ditu. Eta diruz gaizki badabiltza, ezin dute kluba Urzaizengatik hipotekatu”.



MADDI, AINHOA ETA USUE | BERGARA

“Beste talderen baten errendimendu ona eman dezake orandik Urzaizek”

“Gure ustez, Urzaiz oso jokalaria ona da, eta Athleticen gutxi ordaintzen badio eta egin dioten eskaintza ez bazaio gustatzen, beste talderen baten errendimendu ona eman dezake oraindik ere aurrelari nafarrak”.

Reala

Gauza handirik egin gabe Realak hiru puntuak eramane zituen Sevillatik

Azken minutuetara indar gehiagorekin heldu zen Realak, eta Urangak sartutako golari esker lortu zuen garaipena



Jokin Etxebarria

Ruiz de Loperako sorginkeria atzo apurtu zen. Realak 18 urte zeramatzan bertan irabazi ezinik, eta seguru asko, gutxien egin zuen partiduan eramane zituen hiru puntuak. Hasierako hamar minutuak eta bukaerako hamarrrak izan ziren Realarandako. Gutxitan gertatzen da 20 minutuan kontrarioa baino hobea izatea, eta partidua irabaztea. Baina futbola horrelakoa da. Askotan irabazteko merituak egin eta gero galdu egiten da, eta bestetan, hau kasu, alderantziz gertatzen da.

Partidua bikain hasi zen Realaren interesendako. Aranburuk egindako jokaldi bikain baten ia gola sartu zuten txuri-urdinek, eta jokaldi horretatik ateratako kornerean, Labakak denboraldiko bere lehen gola sartu zuen. Baina ez zuen beste ezer egin Realak. Betisek, Championsak ihes egingo ziola ikusita, erasoko bidea hartu zuen. Joaquinek eskuin hegaletik bereak eta bi egin zizkion Garridori, eta aukerak bata bestearen atzetik etorri ziren. Eskerrak Albertok –dagoeneko ahaztuta geneukan Albertok– egundoko geldituak egin zituen, bestela...

Bigarren zatia Realak lo hasi zuen. Zazpi minututan bi gol sartu zizkieten. Bigarrena defentsaren huts ikaragarri batean. Eta aurreko 18 urteetan gertatutakoa berriz ere pasatuko zela zirudienean, partidua zoratzen hasi zen. Realak aukerak izaten hasi zen, De Paulak egindako jokaldi bikain batean Barkerok gola egin zuen –oraindik ez dut ulertzen Aretxabaletakoak zergatik ez duen gehiago jokatu denboraldi osoan– Karpinek langara bota zuen baloi bat, eta azken minutuan Betiseko defentsaren huts bat ederki aprobetxatu zuten Gabilondo eta Gari Urangak gola egiteko, Ruiz de Loperako ikusleak tonto aurpegiarekin utziz. Baliteke Betisek eguenean Kopako partidua jokatu beharra antze-

BETIS  
**2-3**  
REALA

Betis | Doblás, Varela, Juanito, Rivas, Luis Fernandez, Joaquín, Assunção, Benjamin (Denilson 48. min.), Oliveira, Fernando (Israel 79. min.) eta Edu (Cañas 60. min.).

Reala | Alberto, Zubiaurre, Labaka, Borchet, Garrido, Mladenovic, Barkero, Mikel Alonso (Karpin 61. min.), Aranburu (De Paula 61. min.), Uranga eta Kovacevic (Gabilondo 81. min.).

Golak: 0-1 Labaka (04. min.), 1-1 Joaquín (46. min.), 2-1 Oliveira (52. min.), 2-2 Barkero (65. min.), 2-3 Uranga (89. min.).

Epaila: Teixeira Vitienes. Nahiko ondo.

Bikain

ALBERTO

Denbora asko aulkian pasatu eta gero, Irungo atezainak berriz jokatu zuen, ederki jokatu gainera. Bi gol sartu bazizkieten ere, egundoko geldituak egin zituen

Kaskar

GARRIDO

Gazteak ez zuen partidua erraza izan. Joaquinek eguna izaten duenean geldiezina izaten da, eta atzokoan egun ona izan zuen Betisekoak.

man izana, Realak indartsuago amaitu zuelako partidua. Kontuak kontu, Realak asko kaltetu du Betis, eta bide batez fabore txiki bat egin dio Athletic.

CHAMPIONSEKO ZENBAKIAK

Azken hamar partiduetan Realak lortutako zenbakiak ikaragarriak dira. Bartzelonak eta Real Madrilek bakarrik atera dute Realak baino puntu gehiago jardunaldi hauetan. Bolada hau hiru partidua lehenago hasi izan balu, Realak gaur egun Championseko postuetan egongo litzateke.

Eskerrak Albertok egundoko geldituak egin zituen, bestela...

Azken hamar partiduetan Realak lortutako zenbakiak ikaragarriak dira

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Valentzia-Albacete	2-0
Osasuna-At. Madril	1-0
Malaga-Bartzelona	0-4
Deportivo-Racing	1-4
Betis-Reala	2-3
Athletic-Sevilla	1-3
Espanyol-Zaragoza	3-1
Getafe-Levante	1-0
Numantzia-Mallorca	1-2
R.Madril-Vila-real	2-1

HURRENGOAK

Bartzelona-Albacete
At. Madril-Athletic
Racing-Betis
Sevilla-Deportivo
Mallorca-Espanyol
Reala-R. Madril
Numantzia-Valentzia
Vila-real-Getafe
Zaragoza-Osasuna
Levante-Malaga

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	75	33	23	4	6	65	25
2. Real Madril	69	33	22	8	3	59	29
3. Sevilla	55	33	16	10	7	40	36
4. Espanyol	53	33	15	10	8	44	40
5. Vila-real	52	32	14	8	10	53	29
6. Valentzia	52	33	13	7	13	49	34
7. Betis	51	33	13	8	12	54	45
8. Athletic	47	33	13	11	8	53	45
9. At. Madril	47	33	13	12	8	36	27
10. Deportivo	46	33	11	9	13	41	42
11. Zaragoza	46	33	13	13	7	42	46
12. Reala	45	33	13	14	6	44	47
13. Getafe	42	33	11	13	9	33	38
14. Osasuna	40	32	11	14	7	38	53
15. Malaga	39	33	11	16	6	32	45
16. Racing	37	33	10	16	7	37	49
17. Levante	35	33	9	16	8	36	49
18. Mallorca	28	33	7	19	7	30	56
19. Albacete	24	33	5	19	9	28	49
20. Numantzia	23	33	5	20	8	24	54




Kiniepla

KINIELA

1. R. Madril-Vila-real	1
2. Betis-Reala	2
3. Deportivo-Racing	2
4. Athletic-Sevilla	2
5. Osasuna-At. Madril	1
6. Espanyol-Zaragoza	1
7. Numantzia-Mallorca	2
8. Valentzia-Albacete	1
9. Malaga-Bartzelona	2
10. Getafe-Levante	1
11. Tenerife-Recreativo	1
12. Valladolid-Murtzia	2
13. Eix-Celta	2
14. Eibar-Alaves	2

**PREFERENTE MAILA**



AINZANE AGIRRE

Unai Arregik sakontasuna eman zion Aloñaren jokoiari.

## Albizuren golek beste hiru puntu eman zizkion Aloñari

**ALOÑA**  
**2-1**  
**OIARTZUN**

**Aloña** | Jonan, Aitor Lopez, Alatz, Olalde (Igartua 67. min.), Moia (I. Arregi 61. min.), U. Arregi (Garmendia 74. min.), Biain, Barrena, Astola, Garai (Murgoitio 90. min.), Albizu (Astigarraga 79. min.).

**Oiartzun** | Viña, Uranga, Toledo, Azpeitia (Elizegi 39. min.), Maritxalar, Zipitria (Zubeldia 80. min.), Arizmendi, Pikabea, Lamua, Berrotaran eta Endika.

**Golak:** 1-0 Albizu. 2-0 Albizu. 2-1 Pikabea.

**Epailea:** Morales jauna. Partiduaren azken minutuetan ez zuen ondo epaitu. Oiartzunen gola Jonani egindako falta argiaren ondorioz etorri zen eta epaileak ez zuen ezer adierazi.

Jon Unamuno

Zuria eta beltza. Halakoa izan zen Aloñak jokatuako partidua. Lehenengo zatian Albizuren bi golez gain, aukera asko izan zituzten oñatiarrek. Nagusi ziren zelaian eta gol zaparrada heldu zitekeelakoan, lasai asko egon ginen atsedendian.

Zerua belztu egin zen eta Aloñaren jokoiak kolore bera hartu zuen. Lehen zatian bilatutako hutsuneak ez zituen topatzen taldeak eta Oiartzunek aukeratarren bat izan zuen abantaila murrizteko. Aloñak kontraerasoa erabili zuen arma moduan, baina Albizu ordurako nekatuta zegoen. Aukera bikaina izan zuen jokaldi batean, baina kontrola

luze joan zitzaion eta atezainak erraz eskuratu zuen baloia. Hura izan zen Aloñaren aukerarik onena. Partidua amaitzeko 10 minutu falta zirela Oiartzunen gola etorri zen. Jonani falta argia egin zioten eta baloia Pikabearen burura joan zen. Honek sarera erraz jaurti zuen baloia. Amaiera arte larritasuna nagusitu zen, baina azkenean etxean gelditu ziren hiru puntuak.

### MAILAN MANTENTZEA GERO ETA GERTUAGO

Lortutako hiru puntuekin preferente mailan mantentzea gertuago du Aloñak. Oraindik ezin da ezer ziurtatu, baina orain dela hilabete batzuekin alderatuz, asko aldatu dira gauzak.

## Tolosa liderraren kontra ez zen sorpresarik egon

**TOLOSA**  
**3-0**  
**BERGARA**

**Tolosa** | Apezetxea, Goikoetxeaundia (Errasti 79. min.), U. Garmendia, J. Garmendia, Sagastizabal, Azkue, Orue, Prados (Oiarzabal 76. min.), Regillaga (Illumbe 79. min.), Romero (Aierbe 68. min.) eta Elola (Zuloaga 58. min.).

**Bergara** | Sesma, Elkoroberezibar (Hurtada 80. min.), Lazpiur (Igarza 56. min.), Arazcomaga, A. Agirre, Oier (Oregi 68. min.), U. Agirre, Borja (Imanol 45. min.), Alejandro (Alzola 45. min.), Garin eta San Vicente.

**Golak:** 1-0 Orue. 2-0 Prados. 3-0 Oiarzabal.

**Epailea:** Mikel Yarza. Ondo.

A.G.

Liderraren etxean jokatu zuten bergararrek zapatuan eta hiru gol jasota bueltatu ziren etxera.

Hasieran baten planteamendua atzean itxarotea izan zen eta kontraeraso batean gola lortzea izan zen helburua. Hala ere, talde oso ona da Tolosa eta ezin izan zen helburua bete. Lehenengo zatiko 40. minutu arte iraun zuen Sesmaren atean hutsean, baina baloi loratu baten bidez bat eta hutsekoa sartu zuten tolosarrek.

Bigarren zatian zailtasun asko izan zuen Bergarak. Tolosa ondo kokatu zen defentsa lanean eta bi kontraerasoren bitartez partiduko beste bi golak sartu zituzten.



AINZANE AGIRRE

Goitik behera menderatu zuen UDAk Orioko

## Urrezko hiru puntu eman zizkion UDARI Imanolek

**UDA**  
**1-0**  
**ORIOKO**

**UDA** | Aitor, Raul, Lur, Armendariz, Iturbe, Alvaro, Igartua, Eriko (Oinatz 69. min.) (Errasti 90. min.), Kepa (Uribetxebarria 81. min.), Arriaga (Nuñez 87. min.) eta Imanol (Andoni 89. min.).

**Orioko** | Galan, Gonzalez (Asier 86. min.), Seguro, Goikoetxea, Sanchez, Saez, Arruti (Jauregi 64. min.), Jose Manuel (Balda 86. min.), Torre, Olaizola (Padrones 68. min.) eta Solabarrieta (Maka 83. min.).

**Golak:** 1-0 Imanol.

**Epailea:** Berasategi jauna. Nahiko ondo.

tuz irabazi zuen gainera. Gol bakarra egin zuen Aretxabale-tako taldeak, baina beste bost sartzeko aukera nahikoa izan zituen.

Lehen zatia nahiko parekatua izan zen. Oriokok aurrelari handi bat zuen eta goitik erabiltzen zuten baloia min egiteko. Etxekoak joko horrekin kutsatu ziren, eta baloi luzeak erabiltzen hasi ziren. Azken minutuetan ordea, baloia hobeto ukitzen hasi eta aukerak izaten hasi ziren. Hori bai, ate aurrean asmatu gabe.

Bigarren zatian goitik behera menderatu zuen UDAk Orioko. Kanpokoak ez ziren ia etxe-koen atera hurbildu. Imanolek min asko egin zuen bere hegaletik. Baloia alde batetik bestera ederki mugitu zuten Aretxabale-takoen erdilariek. Gainera, presioa nahiko goian eginez, baloi asko berreskuratu zituzten. Hala ere, sufritu egin zuten, gola 84. minutura arte ez zen heldu eta.

Jokin Etxebarria

Derrigorrezkoa zuen UDAk partidua irabaztea jaitsiera postuetatik irteteko, eta bigarren zatian Orioko goitik behera mendera-

## EHUK nahi izan zuena egin zuen Mondraren aurka

**EHU**  
**4-1**  
**MONDRA**

**EHU** | Ximun, Martinez (Marroquin 66. min.), Manuel, Aranbarri, Kintana (Ugartetxea 76. min.), Borda, Jaka, Etxebarria, Gomez, Giglio (Zubillaga 86. min.) eta Txoperena (De Miguel 87. min.).

**Mondra** | Ander, Markel, Barbarias (Eldin 59. min.), Merkader, Laspiur (Argider 72. min.), Ruben, Torres (J. Garmendia 51. min.), Illart, Loiti (Inazio 79. min.), Keixi (A. Garmendia 66. min.) eta Asier.

**Golak:** 1-0 Txoperena. 2-0 Txoperena. 3-0 Txoperena. 4-1 Eldin. 4-1 De Miguel.

**Epailea:** Xabier Ezkurdia. Nahiko etxekoi.

A.G.

Denboraldiko partidurik kaxkarenetarikoa jokatu zuen Mondrak zapatuan. Gainera, EHU preferente mailako talderik onenatarikoa dela kontuan hartuta, emaitza ez da harriztekoa. Lehenengo 20 minutuetan bakarrik eutsi zieten Mondrakoek donostiarrei. Orduan, Txoperenaren egundoko gola etorri zen -sartu zituen hiruetatik lehenengoa- eta arrasatearrak behera etorri ziren.

Hortik aurrera, etxeokoez gozatu egin zuten jokoarekin. Mondragoetarrak alde batetik bestera ibili ziren, baina denbora guztian baloiaren atzetik. Gainera, Ander kaleratu zuen epai-



Ahazteko moduko partidua.

leak, eta jokalaririk bat gutxiagorekin oraindik eta gutxiago egin ahal izan zuten Josu Zubiaren mutilek.



MAILA HANDIKO PROBA | AUTONOMI ERKIDEGO GUZTIETAKO TXIRRINDULARIAK ETORRI ZIREN ETA FRANTZIAKO BI TALDE ERE EGON ZIREN

# Borja Ramos kantabriarra indartsuena izan zen Uzarragan

154 txirrindularik hartu zuten parte lasterketan eta horietatik 110ek lortu zuten proba amaitzea

Deskargak min handia egin arren, proba lasterketaren azken bi kilometroetan erabaki zen

Jon Unamuno

Talde guztien aurkezpena, freskagarri ezagun baten jarleku eta mahaiak txirrindulariendako, Estatu guztiko txirrindulariak... asteburu normal bateko lasterketa ez zela argi zegoen Antzuolako irteeran. 31 taldek parte hartu zuten proban eta bakoitzetik bost txirrindularik parte hartzera mugatuta zegoen. Arratsaldeko hirurak ziren eta urduritasuna nagusi zen txirrindularien artean. Astero gertuko txirrindulariekin lehiatzera ohi-tuak daude, baina Antzuolako proban Txiklanako edo Ferroleko txirrindulariak egon zitezkeen. Epaileak txistua jo eta lasterketari hasiera eman zioten.

Hasierako kilometroak lauak ziren eta 10 txirrindulariko ihesaldi bat aurrera irten zen. Bi

minutu eta erdiko abantailarekin hasi ziren Deskargako gainera igotzen. Ihesaldi honetan Borja Ramos kantabriarra zegoen eta berak lortu zuen mendiko saria. Kilometroak aurrera joan ahala, nekeak txirrindulari askorengan eragin zuen. Udana jaitsi eta Antzuolara bidean jarri ziren txirrindulariak. 50 txirrindulariko tropeltxo hasi zen Uzarraga igotzen. Portu motza eta gogorra da eta garaipena bertan erabakiko zen. Erritmo bizian hasi ziren igotzen eta lehenengo kolpe eraso Pedro Muñoz herriko Rafael Serranok eman zuen. Oraindik kilometro bat gelditzen zen helmugaraino eta luze gelditu zitzaion Gaztela-Leongoari kilometro hau. Lasterketa guztian lan asko egindako Borja Ramos kantabriarra aurrera jo zuen eta Rafael gainditu zuen. Atzetik



AINZANE AGIRRE

Borja Ramos lasterketa osoan protagonista izan ostean, garaipenarekin borobildu zuen Gipuzkoako Klasika.

Julien Berreterot frantziarra helmugaratu zen.

#### GEUREAK ONDO

Debagoiendarrak ondo ibili ziren. Lasterketa gogorra izan zen eta zegoen maila ikusita lasterketa

amaitzearekin pozik egon daitezke. Sumofic taldea hamabosgarren gelditu zen eta Laxy taldearen ostean Gipuzkoako artean bigarren gelditu ziren. Esperiantzia oso polita bizi izan zuten eta Antzuolako lasterketa

ez dute erraz ahaztuko. Lehenengo postuetan gelditutako txirrindulari batzuk profesional-tara helduko dira, seguruenik, eta beti edukiko dute eurekin lasterketa bat korritu zuten orotzpena.

## Zer esan handia emango dute etorkizun batean Ramos bizkiek

Borja Ramos eta Alberto Ramos. Lehenengoak garaipena lortu zuen eta denboraldi honetan bigarrenak garaipen asko lortu ditu. Azken kilometroetan zulatua izan zuen Albertok eta ezin izan zen lasterketaren mamian egon. Borjak, aldiz, Uzarragako igoera guztiz kontrolatu zuen. Urduritasun momentuak izaten dira azkenekoak, baina Rafael Serranoren ihesaldia momentu egokian bota zuen behera. Txirrindulari azkarra dela erakutsi zuen, gauzak argi dituen eta txirrindularitzan etorkizun oparoa izan dezakeena. Zapatuko lasterketan erakutsi zuen maila ez ohikoa da. Lasterketa guztian saltsan egon ostean, azkeneko kilometroetan erakutsi zuen nagusitasuna txapela kentzeko modukoa da. Gertuko aldetik maila handiko txirrindulari batzuk ikusi genituen Antzuolako lasterketan. Jonathan Castroviejo, Julen Gonzalez eta Kimetz Lapazaraneke aurreko postuetan igo zituzten Uzarragako aldapak. Antzuolako lasterketa izanda, Gurutz Larrea aipatu beharra dago: bere helburuen artean zegoen Antzuolako lasterketa baina ez zuen gustura bukatu.

#### • HONELA IKUSI ZUTEN PARTE-HARTZAILEEK



GURUTZ LARREA | ANTZUOLA

“Ez naiz gustura aurkitu lasterketan. Deskarga igotzen asko sufritu dut eta gero ez dut ondo errekueratu. Abiadura handian ibili gara lasterketan”.



RAFAEL SERRANO | PEDRO MUÑOZ

“Oso pozik nago lortutako bigarren postuarekin. Irabazteko eraso kolpea eman dut, baina Borja Ramosek erraz harrapatu dit eta behintzat bigarren egin dut”.

## Emaitzak

#### LEHENENGOAK

1. Borja Ramos (2:32:48)
2. Rafael Serrano (2:32:51)
3. Julien Berreterot (2:32:56)
4. Jonathan Castroviejo (2:33:00)
5. Julen Gonzalez (2:33:00)
6. Kimetz Lapazaran (2:33:02)
7. Hector Romera (2:33:05)
8. Francisco Perez (2:33:09)
9. David Gutierrez (2:33:09)
10. Sergi Seco (2:33:09)
11. Jose Luis Cano (2:33:13)
12. Jose Manuel Gutierrez (2:33:13)
13. Adrian Luna (2:33:13)

#### LEHENENGO DEBAGOIENDARRAK

47. Gurutz Larrea (2:35:57)
56. Asier Penabad (2:36:43)
69. Joseba Iciar (2:42:16)
94. Gorka Anduaga (2:45:38)





## Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa

### GOIESKOLA



instituto  
**IPINTZA**  
institutua

• **Batxilergoak**

- Natura eta osasun zientziak
- Giza eta gizarte zientziak
- Teknologia

**Batzar informatiboa/ate irekiak**  
Apirilaren 26an, 18:30ean  
Boni Laskurain 19 • Tel.: 943 76 31 42



**Arrasate**  
I N S T I T U T U A

• **Batxilergoak (D eta A ereduetan)**

- Natura eta osasun zientziak
- Giza eta gizarte zientziak
- Teknologikoa
- Arte batxilergoa

**Batzar informatiboa/ate irekiak**  
Apirilaren 28an, 18:30ean  
Santa Teresa 25 • Tel.: 943 79 44 47 / 943 79 83 00



zuazola-larraña  
**Oñatiko b.h. institutua**

• **Batxilergoak**

- Natura eta osasun zientziak
- Giza eta gizarte zientziak
- Teknologia

• **Heziketa zikloak**

- Erdi mailakoak**
- Mekanizazioa
- Makineria eta linea eroanbide en instalazioa eta mantentze-lan elektromekanikoa.
- Natura ingurumenean gorputz eta kirol ekintzak gidatzea

**Batzar informatiboa/ate irekiak**  
Apirilaren 27an, 17:00ean  
Zuazola Institutuko Areto nagusia  
Aita Madina z/g • Tel.: 943 78 21 50



# BATXILERGORAKO AURREMATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

## Apirilaren 25etik maiatzaren 6ra

### ARRASATE INSTITUTUA

**Batzar informatiboa / ate irekiak**  
Apirilaren 28an, 18:30ean

Helbidea:

Arrasate BHI

Santa Teresa 25

Tel.: 943 79 44 47 / 943 79 83 00

[www.goieskola.net/arrasateinstitutua](http://www.goieskola.net/arrasateinstitutua)

### IPINTZA INSTITUTUA BERGARA

**Batzar informatiboa / ate irekiak**  
Apirilaren 26an, 18:30ean

Helbidea:

Ipintza BHI

Boni Laskurain 19

Tel.: 943 76 31 42

[www.goieskola.net/ipintza](http://www.goieskola.net/ipintza)

### R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA OÑATIKO BH INSTITUTUA

**Batzar informatiboa / ate irekiak**  
Apirilaren 27an, 17:00ean

Helbidea:

Zuazola Institutuko Areto nagusia

Aita Madina z/g

Tel.: 943 78 21 50 / 943 78 12 08

[www.onati.net](http://www.onati.net)

• EUSKADIKO TXAPELKETARAKO IGOERA FASEA

# Erasoan baloia gutxi mugituta zaila da irabaztea

*Igoera faseko lehen postuak geroz eta urrunago dituzte AGR Arrasatekoek*



AIINTZANE AGIRRE

Etxekoek defentsan huts ugari egin zituzten, irundarren kontraerasoa gelditzen batez ere.

AGR ARRASATE

**22-26**

BIDASOA IRUN

**AGR Arrasate** | Valle, Ekaitz, Jonan Eskibel (1), Aitor Eskibel (1), Urrutia, Aitor Garcia (2), Espeso, Murillo, Lonbide (1), Calleja (5), Alzelai (1), Isasmendi (7), Otegi (4) eta Carrasco.

**Bidasoa Irun** | Jon (2), Puente, Mathieu (8), Garcia (4), Jagoba, Usabarrena, Eduardo, Ibarondo, Irazusta (4), Jimenez (6), Muñua, Javier (1) eta Alex (1).

**Markagailua bost minuturo:** 1-4, 4-5, 6-8, 6-10, 8-10, 10-12, 12-15, 14-17, 15-18, 15-21, 18-24, 22-26.

## Jokin Etxebarria

Mailaz igotzeko postu bat lortzea geroz eta zailago dago AGR Arrasaterentzat. Joan den astean Bilbon galdu eta gero, zaila zegoen, baina aste honetan etxean berriz galduta, oraindik eta zailago. Bigarren itzuliko partidu denak irabazi beharko dituzte igo ahal izateko. Zapatukoa ez zen arerio

errazena egoerari buelta emateko. Bidasoa-Irun sailkapenean lehena da eta partidurik ez du galdu oraindik. Hala ere, erakutsitako jokoa ez zen ona izan, eta ez kontrarioa lehena izateak ezta epaileen lan kaxkarrak ere ez dute aitzakia izan behar.

Etxekoek ez zuten partidu ona jokatu. Kantxara lo irten ziren, eta erasoan baloi askotxo

galtzeaz gain, ez zuten jakin kanpokoek kontraerasoak gelditzen. Aipatzekoa da, lehen zatian irundarren sartutako 12 goletatik zazpi kontraerasoan izan zirela. Ezin esan daiteke Bidasoak ere partidu ona egin zuenik, baina bere aukerak aprobetxatzen jakin zuten.

Etxekoek lehen zatia amaitzeko zegoela partidua berdintzea

lortu zuten, baina berriz ere hasierako hutsetan erori ziren eta ezin izan zioten buelta eman partiduari. Gainera, bigarren zatian, etxekoek burua galdu zuten apur bat, eta epaileek egindako lanak ere ez zuten batere lagundu. Hamar minutu falta zirela partidua erabakita zegoen, eta etxekoek zerbait hobetu arren ez zuten ezer egiterik izan.

• EUSKADIKO TXAPELKETA



JASONE ZABALA

## BERGARA 22 - GURE UPV 29

Denboraldiko azken partidua jokatu zuten atzo Bergarako nagusiek. Ezin izan dute denboraldia garaipen batekin agurtu, eta 22 eta 27ko emaitzaz galdu zuten Gure UPV taldearen aurka. Gazte jende mordo batekin jokatu zuen etxeko taldeak, eta partiduan izandako bizitasuna, beste partidu batzuetakoa baino hobea izan zen. Defentsan eta erasoan nahiko ondo aritu ziren Landerren mutilak, baina betiko baloi-galtzeak izan zituzten, eta markagailuan hurbildu ziren arren, ezin izan zuten ezer egin garaipena lortzeko.

• LEHEN ETA BIGARREN TERRITORIALA (KOPA)



JOKIN ETXEBARRIA

## ARRASATE 23 - LEIZARAN 19

Azken aldera gauza zailak egin bazituzten ere, Arrasatekoek partidua nahiko erraz irabazi zutela esan daiteke. Partidua txarra izan zen. Lehen 15 minutuetan talde bakoitza hiru gol bakarrik sartzeko gai izan zen. Gerora, baina, etxekoak partiduari tonua hartzen hasi ziren, eta gutxika-gutxika golak sartuz abantaila handitzen joan ziren. Hala ere, 10 minuturen faltan, eta dena erabakita zegoela ematen zue-nean, etxekoak huts asko egiten hasi ziren, eta kanpokoek abantaila murriztu zuten, baina azkenean garaipena etxean gelditu zen.

## Aipagarri

### IGOR EGAÑA MIN HARTUTA

AGRko atezainak uzkurdu-ra bat izan zuen partidua hasi baino apur bat lehena-go, eta ezin izan zuen Bidasoaren aurkako partiduan etxekoek atea gorde. Bere postua, bigarren taldeko Ekaitzek hartu zuen, eta hasieran nahikoa nerbiorekin ibili bazen ere, lan polita egin zuela esan behar da, batez ere lehen zatiko azken minutuetan.

### KONTRAERASOAK EZIN GELDITU

Hau izan zen etxekoek huts nabarmenena. Mathieuk, Bidasoaren hegaleko frantziarrak, sartu zituen zortzi golak kontraerasoan izan ziren. Erasoan galdutako baloi ia guztiak kanpokoek kontraeraso bihurtzen ziren, eta gehienetan gola gainera. Aipatzekoa da, irundarren lehen zatian sartutako 12 goletatik zazpi kontraerasoan izan zirela, eta horrek erakusten du etxekoek ezina jokaldi hau gelditze-ko orduan.

## Emaitzak

### MAILAZ MAILA

**SENIOR MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETA**  
Bergara-Gure UPV 22-29

**LEHEN TERRITORIALA IGOERA FASEA**  
AGR Arrasate-Bidasoa Irun 22-26

**LEHEN ETA BIGARREN TERRITORIALA (KOPA)**  
Arrasate-Leizaran 23-19  
Eibarko Haritza-Aloña Mendi 24-33  
Bergara-Urola Agip 22-24

**SENIOR MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA**  
Ereintza-Verkol Aloña 24-17

**GAZTE MAILAKO MUTILEN GIPIZKOAKO KOPA**  
Arrate-Gatz Museoa Jakion 30-10  
Aitzuri jatetxea-Aloña Mendi 29-17

**GAZTE MAILAKO NESKEN GIPIZKOAKO KOPA**  
Leizaran-Arrasate 31-3  
Zahara Kafetegia-Bergara 20-32

**KADETE MAILAKO MUTILEN GIPIZKOAKO KOPA**  
Sanlo Elgoibar-Aloña Mendi b.b.  
Usurbil-Bergara 20-37  
Zarautz-Arrasate 40-5

**KADETE MAILAKO NESKEN GIPIZKOAKO KOPA**  
Jauja Andonegi-Verkol Aloña 11-22

• BIGARREN MAILA NAZIONALA

# Sufrimenduz lortutako garaipena

*Lehen hiru laurdenak gaizki jokatu zituzten etxeok; partidutik kanpo egon ziren. Baina azken laurdenean lan ona egin eta irabazi egin zuten*

ESKORIATZA

**62-51**

PINTURAS ESTECO

**Eskoriatza** | Usabiaga (8), Laborda (2), Gomez (2), Alarcia, Sebastian, Murillo (17), Etxeberria (18), Soriano, Exposito (9), Etxebarria (4), eta Romera (4).

**Pinturas Esteco** | Barrios (5), Duran (4), Virto (2), Rodriguez, V. Yenes (13), C. Yenes (6), Fernandez (9) eta Lopez (3).

**Laurdenetako emaitza:** Lehenengo laurdena 16-14. Bigarren laurdena 27-28. Hirugarren laurdena 39-41. Laugarren laurdena 62-51.

Jasone Zabala

Garaipen oso garrantzitsua lortu zuten zapatuan eskoriatzarrek Portugaleteko Pinturas Esteco taldearen aurka.

Berdintasun handiz eman zioten hasiera partiduari. Kanpoko taldea hobeto hasi zen jokatzeko, eta behin eta berriz erasoko erreboteak hartu zituzten. Etxekoek,

beraien artean pasea ematera koan akats asko egin zituzten. Lehen laurdenean puntu gutxi sartu zituzten bi taldeek, nahiz eta intentsitate aldetik, kanpokoak hobeto aritu ziren. Bigarren laurdenean, Portugaletekoek hiruko jaurtiketa pila bat egin zituzten, eta baita batzuk saskiratu ere. Etxekoek defentsako lanak eskasa izaten jarraitzen zuten, batez ere defentsako errebotetan, eta aukera asko eman zizkien kanpokoek saskiratzeak lortzeko. Hirugarren laurdenean, markagailuko aldeak ez ziren handiak, baina bizkaitarrak ari ziren partidua kontrolatzen. Partidu honek zuen garrantziagatik edo, etxeok oso urduri zeuden, eta azkar jokatzeko hasi ziren, pase txarrak ematen eta baloi asko galtzen. Bazirudien egoera ezin zela aldatu, baina ez zen hala izan. Hirugarren laurdena bi puntuz galtzen bukatu zuten: 39-41, hain zuzen.

**AZKEN LAURDEN BIKAINA**

Azken laurdena, presioa egiten hasi zuten etxeok; partidua berdinduta jarraitzen zuten, eta



AINZANE AGIRRE

Fernandok azalpen ugari eman behar izan zituen partidua guztian zehar.

intentsitatea igo zuten etxeok. Defendatzen hasi ziren orduan, eta errebotea ederki ixten. 10 eta 0eko partziala egin zieten bizkaitarrei, eta hortxe egon zen partiduko gakoa. Denbora gutxi falta zen, eta intentsitatea mantendu beharra zegoen. Portugaletekoek, laugarren laurden horretako lehen saskiratzea bi minuturen faltan sartu zuten. Kanpotarrek behera egin zuten

azken laurdenean, eta ezin zuten saskiratzerik sartu. Azkenean, ez zen ezer gehiagorako denborarik izan, eta garaipen bikaina lortu zuten. Modu honetan, sailkapenari begira, bosgarren jarri dira Fernando Rasoren neskak, bizkaitarren gaintetik, eta gelditzen zaizkien lau partiduetan duten guztia eman beharko dute, oraingoan beraien esku baitago mailari eustea.

# Jipoi ederra Aloñak Ametsari

ALOÑA MENDI

**79-49**

AMETSA KA

**Aloña Mendi** | Madariaga (8), Otamendi (6), Iñigo Zabaleta (19), Iker Zabaleta, Ugarte (4), Blanco (9), Arregi (4), Garcia (16), Anton (5), Mendiola (4) eta Madina-beitia (4).

**Ametsa KA** | Martinez (15), Larreategi (6), Sierra (3), Malaga (17), Arriola (2) eta Fernandez (6).

**Puntuak laurdenetan:** Lehenengo laurdena 25-10. Bigarren laurdena 39-24. Hirugarren laurdena 62-32. Laugarren laurdena 79-49.

Jon Unamuno

Partidu erraza izan zuten Aloña Mendiko mutilek. Aurrean talde makal bat izan zuten, arintasun gabekoa. Ander Gorostiagaren mutilak zonan jarri ziren eta Ametsako jokalariek zailtasun askorekin heltzen ziren saskira.

Lehenengo laurdenean 15 puntuko abantaila lortu zuten etxeko taldeak, baina bigarren laurdenean gauzak lasai hartu zituzten Aloña Mendiko jokalariek.

**HIRUGARREN LAURDENA**

Atsedendian indarberritu egin ziren berriz ere Aloñako jokalariek eta 23-8 partziala egin zuten.



AINZANE AGIRRE

Partidu guztian aurretik joan ziren etxeko jokalariek

Partiduko irabazlea erabakita zegoela, azkeneko laurdena berriro ere lasai hartu zuten Aloñako jokalariek.

Ander Gorostiagaren esanetan maila gutxiko txapelketa da

jokatzeko dihardutena, baina behintzat lehenengo postuan daude. Denboraldiari amaiera emateko sailkapeneko lehenengo postuari eustea motibagarria izan daiteke.

• FEDERAZIO KOPA

## Arrasatearrek ez dute kopa irabazteko aukerarik

URDANETA

**90-55**

MUGARRI ALKESA

A.G.

Baja askorekin joan ziren Mugarri Alkesako mutilak Loiura jokatzera. Hiru jokalaririk titularren falta handia izan zen, eta gainera sei jokalarirekin bakarrik joatea guztiz erabakigarria izan zen partidua ezin irabazteko ahal izateko. Hasieratik etxeok erritmo bizia jarri zioten partiduari, eta Zurutzaren mutilak ez ziren gai izan fisikoki eusteko. Etxekoek abantaila handia hartu zuten segituan, eta hortik aurrera partidua ez zuen historiarik izan.

Partidua galtzarekin batera, gainera, Federazio kopa irabazteko aukera guztia galdu dituzte arrasatearrek. Izan ere, bi garaipen eta bi porrotekin, sailkapenean atzean gelditu dira; gainera, basketaberagea kontra dute Urdanetarekin.

Bi partidua gelditzen zaizkie denboraldia bukatzeko Mugarri Alkesakoei, eta dagoneko helbururik gabe gelditu direnez, entrenatzaileak aukera polita du jende gaztari eta ahulkitzokoei ohikoak baino minutu gehiago emateko, hauek lehiaketako erritmoa har dezaten.

## Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILA

Urdaneta-Mugarri Alkesa 90-55

SENIOR MAILAKO

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Tecnun-Candy BKE 45-65

Aloña Mendi-Ametsa K.A. 79-49

GAZTE MAILAKO

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Gros Xake-Mugarri Alkesa 66-52

Cafes Aitona-Aloña Mendi 46-39

Araneta-Easo B 59-54

KADETE MAILA

Mugarri Alkesa-Cafes Aitona 66-77

Lacor-Loyola A 44-42

Aloña Mendi-Easo C 65-56

NESKEN BIGARREN MAILA

Eskoriatza-Pinturas Esteco 62-51

GAZTE NESKAK

Easo-Aloña Mendi 39-18

Antigua Luberrri-Eskoriatza 66-16

KADETE NESKAK

Easo San Luis-Bergara 61-30

Loyola B-Eskoriatza 49-15

**Gimnasia Erritmikoa**

• GIPUZKOAKO TXAPELKETARAKO SAILKATZE PROBAK

# Debagoieneko neskek lan ona egin zuten Bergaran

*Goiz eta arratsaldean izan ziren saioak; alebin mailako neskek aritu ziren probetan*

Jasone Zabala

Zapatuan izan zen, Bergarako Labegaraia eta kiroldegian, Gipuzkoako txapelketarako sailkatzeko azken saioa.

Goizeko 11etan hasi, eta arratsaldera arte iraun zuen probak. Alebin mailako saioa izan zen, eta guztira 8 elkarterk parte hartu zuten: Bergara, Arrasate, Antzuola, Azkoitia, Tolosa, Ibarra, Zarautz eta Eibarko gimnasia erritmikoko taldeek hain zuzen ere.

**IBARREKOAK BIKAIN**

Hauk izan ziren sailkatutako neskek: taldekako lanean, lehenak, bergararrak izan ziren, bigarren azkoitiarrak, hirugarren tolosarrak, laugarren Antzuolako taldea, eta bosgarren tokian arrasatearrak. Gipuzkoako txapelketarako hauk guztiak sailkatu ziren.

Banakako saioan eta ibarrekoie dagokionean, bigarren tokian Kristina Etxeberria bergararra sailkatu zen, bosgarren Ainara Gonzalez, hau ere bergararra, eta zortzigarren Aintzane Rodriguez arrasatearra. Lehen saioa Arrasaten



AINTZANE AGIRRE

Ikusle asko hurbildu ziren zapatuan saioa ikustera.

egin zen, eta zapatukoa izan zen azken proba Bergaran. Sailkatze proba hauk bi eremutan banatzen dira: bat, Debagoieneko eta inguruko taldeekin egiten dena, eta bigarrena, Donostia aldeko taldeekin egiten dena. Bi eremuetatik sailkatzen dira, eta hauk izango dira Gipuzkoako txapelketa jokatu dutenak.

Saioa arratsaldean bukatu zen, eta ikusle asko izan ziren bertan, batez ere gurasoak; ibarreko taldeek egindako lana ona izan zen. Gipuzkoako txapelketarako banakakoetan lehen zortziak sailkatzen ziren, eta Debagoienetik hiru neska sailkatu dira. Amaitzeko esan, Gipuzkoako txapelketa datorren maiatzaren 21ean jokatu dela Hernanin.

• PIRAGUISMOA

**LEIRE FERNANDEZ BERGARARRA LEHENA EUSKADIKO KOPAN**

Saint Pe de Bigorren jokaturako Euskadiko Kopan, Bergarako Beti Busti taldeak emaitza oso onak jaso ditu. Taldeka hirugarren postua lortu zuten. Batez ere, aipatzekoa da Leire Fernandezek egindako lana. Egundoko denboraldia egiten dabil bergararra. Orain arte, Espainiako Kopan bi probatan hartu du parte eta bietan hirugarren gelditu da. Euskadiko Kopan parte hartutako hiru probetan lehena gelditu da. Ezin ahaztu, gazte mailan Markel Cestafe hirugarren postuan sailkatu zela.

Bestalde, kontuan hartzekoa da, bi aste barru Bergaran jokatu dela Gipuzkoako eskola arteko Txapelketa.



BETI BUSTI K.E.

• ETB KANTXA: ELGETAKO 4 T'ERDIKO TXAPELKETA



AINTZANE AGIRRE

**ASTE BURUAN HAINBAT PARTIDU IZAN DIRA**

Asteburu honetan ETB kantxako hainbat jardunaldi izan dira. Guztira 13 partidu, bai kadete mailan, eta baita 23 urtez azpikoetan ere. Debagoieneko pilotari batek jokatu zuen partidua: 23 urtez azpikoetan ari den Azagirre gazteak, 22 eta 7 irabazi zuen Lasa II. aren aurka.

**Pertika Jauzia**

# Jonathan Perez lehena klubun arteko txapelketan

A.G.

Zapatuan jokatu zen Euskadiko Klubun arteko Txapelketa, eta pertika jauzian Jonathan Perez arrasatearrak irabazi zuen. Hala ere, ez zegoen guztiz pozik. Lortutako marka ez zen ona izan. 4'20

metro saltatu zituen, bere markatik nahiko urrun. Baina kontuan hartuta bi aste nahiko txar pasa dituela, saltorik egin gabe, ezin esan daiteke pozteko modukoa ez denik txapelketa irabazi izana. Datorren astean Iruñean egingo du salto arrasatearrak.

Bertan salgai

# ASTELEHENKO Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

<p><b>Antzuola:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Altzarte okindegia</li> <li>•Martin okindegia</li> </ul> <p><b>Elgeta:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Kioskoa</li> </ul> <p><b>Bergara:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Bolintxo okindegia</li> <li>•Ogizun okindegia</li> <li>•Konde okindegia</li> <li>•Olabe okindegia</li> <li>•Mizpildi okindegia</li> <li>•Plazako Kioskoa</li> <li>•Txurrerua Kioskoa</li> </ul> <p><b>Arrasate:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Eroski merkatal guneko prentsa txokoa</li> <li>•Balantzategi kioskoa</li> <li>•Portaloiko kioskoa</li> <li>•Usue paper denda</li> <li>•Bolintxo Okindegia</li> <li>•Maalako okindegia</li> <li>•Kurruxko okindegia</li> </ul>	<p><b>Aretxabaleta:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Errasti kioskoa</li> <li>•Ibarra estankoa</li> </ul> <p><b>Eskoriatza:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Dorleta liburudenda</li> </ul> <p><b>Leintz Gatzaga:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Labidea</li> </ul> <p><b>Aramaixo:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Plazako kioskoa</li> </ul> <p><b>Oñati:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Haritza Kioskoa</li> <li>•Ibarrondo Kioskoa</li> <li>•Eskolatxo okindegia</li> <li>•Arantxa okindegia</li> <li>•Irizar okindegia</li> <li>•Ogibarrri okindegia</li> <li>•Olakua okindegia</li> <li>•San Lorentzo okindegia</li> <li>•Errota okindegia</li> </ul>
--	---

Pilota

• PROFESIONALAK

# Gonzalezek partidu bikaina jokatu zuen, eta ezin izan zuten ezer egin Del Reyk eta Goñik

*Azkainekoari ederki lagundu zion Eulatek, eta garaipen bikaina lortu zuten*

GONZALEZ - EULATE  
**22-15**  
DEL REY - GOÑI III

Jasone Zabala

Partidu polita ikusi genuen Berbaran. Gonzalez izan zen protagonista nagusia; bikain jokatu zuen Azkaineko aurrelariak.

Hasieratik, aurreko aldean agintzen hasi zen Iparraldeko pilotaria, amaiera bikainak emanez tantoei, indar handiz eta txapa gaineko zoragarriak egiten, eskuin bikaina duela erakutsiz; ez zion aukerarik eman Del Reyri. Eulatek ederki lagundu zion



AINZANE AGIRRE

Gonzalez partiduko onena izan zen, eta eskuin bikaina duela erakutsi zuen.

Gonzalezi atzeko aldean. Hone-la, Goñiri lana pilatu zitzaion atzeko aldean eta ezin izan zuen ezer egin. Azkenean, Gonzalez eta Eulate irabazle.

**BESTE BI PARTIDU**  
Beste bi partidu ere jokatu ziren, eta emaitzak ondorengoak izan ziren: Capellan eta Auxkinek 22 eta 14 irabazi zien Galartza V. a

eta Apeztegiari; Capellan ederki aritu zen Bigarren partiduan, Berraondo eta Arizmendik 18 eta 7 irabazi zuten Chafee eta Zubietaren aurka.

**Adituen iritzia**

“Partidu entretenigarria izan da. Gonzalezek ondo jokatu duen arren, akats asko egin ditu pilota errazetan. Indartsuena bera izan da. Goñi erregularrena izan da, baina ezin izan du Gonzalezekin kolpearekin. Eulate eta Del Rey nahiko justu ikusi ditut.”

**PACO MARTINEZ** | PILOTARI OHIA

“Partidu polita izan da. Gonzalezek asko asmatu du, partidu ona egin du. Indar izugarria du, batez ere eskuinean. Eulatek lanak ondo egin ditu eta partidu handia jokatu du. Del Rey izan da maila eskasena azaldu duena, eta ondorioz lana pilatu zazio Goñiri atzean”.

**ANTTON MAIZ** | PILOTARI OHIA

Mendi bizikleta

• EUSKADIKO OPEN TXAPELKETA

# Patxi Cia izan zen irabazlea eta Iñigo Roldan laugarrena

*Hasierako kilometroetan Barrancorekin batera zihoan Patxi, baina katea apurtu zuen Barrancok*

Jon Unamuno

Giro aparta egon zen Arrasaten atzokoan. Euskadiko Openaren hirugarren proba jokatu zen eta sailkapenean lehenengo postuan zeudenek ez zuten kale egin. Horrez gain Gipuzkoako txapelketa ere jokatu zen lasterketa berean.

Patxi Cia eta Santi Barranco aurreratu ziren lasterketan. Hala ere, Barrancok katea apurtu zuen eta hortik aurrera lasterketak ez zuten historia handirik izan, azkenean kilometroak Patxi baka-

rrik egin zituen eta. Gure bailarakoen artean Iñigo Roldan izan zen azkarrena, lortutako laugarren postuarekin. Bailarako beste txirrindulariak hauek izan ziren: Zigor Urain hemezortzi-

garren, Igor Baz hogeigarren, Felix Zugasti hogeita bigarren eta Igor Lazkano hogeita hamargarren. Master 40 mailan J.A. Lopez arrasatearrak hirugarren postua lortu zuen.

**• NOLA IKUSI DUZUE LASTERKETA?**



**IÑIGO ROLDAN** | ARETXABALETA

“Oso pozik nago egindako lasterketarekin. Aurretik sartu direnek maila handia dute eta ni nire mailan egon naiz. Gainera, azkenean postu batzuk aurreratu ditut”, esan zuen Iñigok.



**URKO MUNDUATE** | LEZO

“Gipuzkoako txapelketa lortu dut eta garaipen garrantzitsua da niretako. Gainera, lasterketan hirugarren postua lortzea ere emaitza oso ona da”, adierazi zuen pozik Urkok.



JON UNAMUNO

Aldapa gogorrek igo behar izan zituzten txirrindulariek.

**Sailkapena**

**EMAKUMEAK**

- 1. Nekane Lasa (1:04:01)
- 2. Monika Ojeda (1:17:25)
- 3. Olaiz Bertol (1:20:20)

**GIZONAK**

- 1. Patxi Cia (1:46:28)
- 2. J.A. Diez (1:49:15)
- 3. Urko Munduate (1:49:49)

# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Arrasate eta Bergarako musika eskolek kontzertuak egin dituzte asteburuan | 24
- Liburuan batu ditu Antzuolako Udalak Patxiku Txerren lehiaketako ipuinak | 25

Brigada Criminal taldeko Aitor Aldanondorekin jardun dugu disko berriaz | 26

**RUPER ORDORIKA & MUGALARIS ELGETAN**



AINZANE AGIRRE

Ruper Ordorika & Mugalaris-ek bi orduko emanaldia egin zuten Elgetako Espaloian. Aurreko diskoetako kantuak jo zituzten.

**SASOI EZBERDINETAKO KANTUAK** | GUTXITAN ARITUKO DA TALDEA AURTEN

## Ordorikaren ibilbidean garrantzitsuak izan diren hainbat kantu batera

*Luxua izan da asteburu honetan Ordorikaren jarraitzaileentzat oñatiarraren kantu bildumako piezarik onenak kontzertu batean entzutea. 800 pertsona bildu ditu asteburuan emandako bi kontzertuetan*

Larraitz Zeberio

Gutxitan izango dugu aurten Ruper Ordorika & Mugalaris laukotea entzuteko aukera. Joan den martxoan Kataluniako Les Borges Blanques-en emandako kontzertu ostean elkartu da berriz taldea, baina Ruperrek adierazi duen moduan “ez gara aurtengoan sarritan ibiliko”.

Horregatik, agian, asteburu honetan taldeak eman dituen bi kontzertuen arrakasta. Barikuan Durangoko Plateruena Kafe Antzokian eta zapatuan, berriz, Elgetako Espaloian. “Kontzertu asko eman ditugu azken diskoa aurkezten eta orain, Hiru Trukurekin nabil”, azaldu du oñatiarrak. “Lasai hartuko dugu”.

Kontua da bi kontzertutan 800 bat pertsona bildu dituela laukoteak, eta hori ez da batere marka makala kontuan hartuta Durango eta Elgetan zeinen hurbil dauden.

### FORMAZIO BERRIA

Dani Perezek, Nando de la Casak eta Alberto de la Casak osatzen dute aurten Ordorikaren Mugalaris taldea. “Formazio berria da, ez gara Les Borges Blanques-en aritutako taldea, baina aurreko diskoetako kantuekin erreperitorio berria osatu dugu eta oso proiektu polita da”.

Elgetako Espaloian bildutako publikoak horrela ikusi zuen eta benetan gozatu zuen abeslari oñatiarraren garai guztietako kan-

### Fitxa teknikoa

#### • TALDEA

Ruperren Mugalariak aurten: Alberto de la Casa (baxua), Nando de la Casa (bateria) eta Dani Perez (gitarra).

#### • JENDE KOPURUA

350 bat lagun.

#### • IRAUPENA

Bi ordu pasatxo. Jendeak eskatuta hirutan irten zen taldea agertokira.

#### • ARGIA ETA SOINUA

Soinuan Jonan Ordorika eta argiekin Danel Ibisate (Jabi Ullaren argi diseinuarekin). 40.000 watio argitan eta 6.000 watio soinuan.

tekin. *Halako gau batez izan zen kontzertua zabaltzeko Ruperrek aukeratutako kanta. Ondotik etorri ziren Zaindu hainbeste maitte duzun hori, Bihotz begiekin, Mila1 gau, Done ezer ezdaezinezko edo Kantuaren gauza galdua besteak beste.*

### AMAITU EZINIK

Hirutan agurtu zuen emanaldia Ordorikak, baina publikoak behin eta berriro eskatuta jarraitzen eman behar izan zion kontzertuari. Orduan entzun genituen *Redemptions Songs* deituriko estiloko bi kantu edo *Ama zer duzu nigarrez* kantu zaharra. Hurbileko kontzertua izan zen. Betiko moduan, Ruperrekin, soinu eta argiztapen bikainarekin.

RUPER ORDORIKA & MUGALARIS ELGETAN

RUPER ORDORIKA | KANTAUTOREA

# “Udazkenetik aurrera bakarlari moduan aritzeko asmoa dut”

Larraitz Zeberio

**Luxu bat izan da Ruper & Mugalaris entzutea. Kontzertu gutxi emango dituzte aurten. Udazkenetik aurrera Ruper bakarlari lanetan ikusiko dugu.**

**Mugalariekin gutxitan ikusiko zaitugu aurten, ezta?**

Asko ibili gara Gabonak arte. Nik uste dut azken diskoa ondo erakutsi genuela han eta hemen eta oraingo honetan beste abiada batean ibiliko gara, abiada lasaigoan. Beste disko batzuetako kantutak ekarri ditugu, aspaldian eskaini gabeko erreperitorioa, azken finean. Beti hartzen dut kontuan nire kontzertuetara askotan etortzen den entzule hori eta ahalegintzen naiz zerbait ezberdina ematen.


**Bakarlarria, Hiru Truku taldearekin, Mugalariekin... proiektu ezberdinetan murgilduta zabitza. Ez zara pinoi finkoko musikaria, ezta?**

Nik nire hariari tiraka egiten diot. Hiru Truku guztiz bestelako formazioa da, baina niretzako barrutik gauza bera da. Niretzat kantu zaharra inspirazio iturri ere bada. Egia da talde honekin bada goela beste harreman bat, beste esparru batean sartzen garela, beste soinu bat da, eta beste mundu bat.

Joan den urtean ere egin ditut kontzertu batzuk bakarlari moduan eta kontrabaxu-jotzaile batekin. Udazkenetik aurrera kontzertu horiek bultzatzeko asmoa dut. Oraingoz Hiru Trukurekin nabil maiztera arte eta gero gerokoak.

**Fernando Saunders gitarra jotzailearen kontzertuan izan zinen Elgetan azken aldiz. Oso urduri jarri zine-lan esan didate. 25 urte musika munduan eta oraindik ere horrela?**

Hain urduri jarri nintzen? Izan daiteke. Nire ingurukoek ondo dakite nolakoa naizen!



LARRAITZ ZEBERIO

**“Aurreko diskoetako kantutak ekarri ditugu erreperitorio berri honetan”**

**“Ez zait gustatzen dena batera egitea eta udan jarriko naiz, soseguz, konposizio lanetan”**

**Bi orduko soinu frogak egin dituzue hemen. Zorrotza ere bazara.**

Guretzako soinua funtsezkoa da. Gure lanbidean eta alor horretan ez dago zorrotza ez izaterik. **Konposizio lanetan bazabiltza?**

Hori, soseguz. Gauza askotan nabil eta ez zait gustatzen dena batera egitea. Badauzkat gauza-txo batzuk eta uste dut udan jarriko naizela horretan. Bitartean maiztera arte Hiru Trukurekin. **Zure hurrengo kontzertuak?**

Euskal Herrian gutxi. Oñatin izango gara Hiru Trukurekin. Kanariak eta Katalunia oraingoz.

• HORRELA IKUSI DUTE KONTZERTUA



JASME ETA AITZOL |  
URRETXU ETA ANTZUOLA



LUIS |  
ELGETA

**“Kantu ezagunak entzun ditugu eta oso giro polita sortu da. Aretoa ere aproposa da oso”**

“Ruper gustatu egiten zaigu eta horregatik etorri gara”, adierazi zigun kontzertu amaieran bikote gazte honek. “Kontzertu ona izan da, asko gustatu zaigu. Kantu ezagunak entzun ditugu eta gustura egon gara”. Aretoa sortutako giroa ere aipatu ziguten, “kontzertu honetarako, gainera, tamainaz oso aproposa iruditu zaigu Espaloia”.

**“Jende asko bildu da eta giro polita sortu da benetan”**

“Ez naiz Ruperren fan sutsua, baina aste bete lehenago erosi nuen sarrera. Gaurko kontzertua asko gustatu zait. Benetan merezi izan du etortzea. Jende asko bildu da eta giro polita sortu da”.



ITZIAR, JURDI, MIKEL ETA MARIA |  
BERGARA, GASTEIZ ETA DURANGO

**“Ez gara Ruperren jarraitzaileak, baina gustatu egin zaigu Espaloian sortu duen giroa”**

Laukote honek adierazi zigunez ez dira Ruperren jarraitzaile sutsuak eta Espaloia ezagutzera igo ziren Elgetara gehien bat. “Aretoa oso ondo dago eta kontzertua ere bikaina iruditu zaigu. Ruperrek giro ona sortu du, oso gertukoa, eta jendea gustura egon da. Eskertzekoa da emanaldia hainbeste luzatu izana”. Espaloia leku lasaia eta atsegina iruditu zaiela ere gaineratu ziguten. “Oso aproposa Ruperren emanaldi baterako”.

• KONTZERTUKO BESTE PROTAGONISTAK



**SOINU ETA ARGI TEKNIKARIAK.** Jakina da Ruper oso musikari zorrotza dela eta bi orduko soinu frogak egin zituen taldearekin kontzertua hasi aurretik. Oñatiarrak Jonan anaia izan zuen soinu mahaian. Argiekin, Danel Ibisate. Mundial biak ere.



**DANI PEREZ.** Gitarra-jotzaile argentinarra du Ruperrek taldean aurten. Oso musikari fina da, jazz mundutik dator Dani, eta zinez nabari zaio.



**PUBLIKOA.** Adin eta leku guztietako jendea bildu zen Espaloian. Publikoa oso gustura egon zen ordu eta erdiko emanaldian. Musikariek agur esan zutenean luzapen eskaria aho batekoa izan zen. Hirutan lortu zuten oñatiarra berriz agertokira ateratzea.

ROCK GAUA | **ESKORIATZAKO GAZTE ASANBLADAK ANTOLATUTAKO KONTZERTUA**

# Arratsaldean hasi eta ia gauerdia arte iraun zuen gaztetxeko kontzertuak

**Non.** Eskoriatzako gaztetxean.  
**Noiz.** Zapatuan.  
**Zenbat jende.** 330 bat lagun.  
**Iraupena.** Bost ordu inguru. 18:30ean hasi zen.

## Asteleheneko Goienkaria

Arrasateko Aggerssive Combat eta Lost Girls, Oñati eta Eskoriatzako Drakes eta Zumaiatik etorritako Trastorno Mental taldeek arratsaldeko 6:30ean ekin zioten rock emanaldiari Eskoriatzako gaztetxean. Aggressive Combat taldeak indartsu hasi zuen emanaldia; jende gehien batu zuen taldea izateaz gainera, ikusleak dan-

tzan aritu ziren ordu bat eta 20 minutuz. Lost Girls taldeak gaueko kontzerturik politena egin zuen. Estreinaldiko kontzertua izan zuen taldeak, baina urduritasunari aurpegi ona jarri zioten eta jendea kantuan jarri zuten.

Afalorduan aritu ziren Drakes taldekoak. Kontzertu boro-bila egin zuten, kanta ezagunak

## Jendea dantzan eta kantuan aritu zen kontzertuaren hasieratik



AINZANE AGIRRE

Lost Girls taldeko neskek urduri, baina kontzertu oso polita egin zuten zapatu gauean.

jo zituzten eta maila ona erakutsi zuten. Zumaiarrek itxi zuten rock gaua, lagun arteko kontzertuarekin.

**ANGER ETA BIOK TALDEAK** Datorren astean beste bi taldeekin antolatu dute kontzertua Eskoriatzako gaztetxean; Anger

eta Biok taldeak arituko dira, hain zuzenere. Biokek disko berria aurkeztuko du. 22:30ean izango da.



## ARRASATE | **ARRASATE MUSIKALEKO TXISTULARIEN EMANALDIA**

Jagoba Astiazaran txikienak zuzentzen eta Juan Carlos Larreategi nagusienekin aritu ziren ia ordubeteko txistu kontzertuan, Arrasate Musikalen. Ainhoa Barreiro, Julen Aspe, Arrate Isasi-Isamendi, Danel Mazmela, Amets Pagaldai, Jagoba Astiazaran, Olatz Eriz, Jone Zubiaga, Gorka Errezil, Lander Diez de Gereño, Jokin Errarte eta Urki Larrea izan ziren txistulariak. Arrasate Musikalek udaberrian egin ohi duen emanaldia zen eta sinfoniak, zortzikoak eta arin-arinak jo zituzten, binaka, bandan eta taldeka. | M.D.



## MUSIKA | **BERGARAKO MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN EMANALDIAK**


Bukatzeko dago Bergarako Musika Eskolak antolatutako emanaldi sorta. Eskolako ikasleek egiten dituzte emanaldiok eta gaur, astelehena, soka taldeak egingo duen emanaldiak itxiko du hilaren 18an hasitako egitaraua. Soka taldearen emanaldia Sierbetako elizan izango da, 18:30ean. Pasa berri den asteburuan ere hainbat kontzertu egin dituzte. Egubakoitzean, esaterako, biolin ikasleek emanaldia egin zuten Zabalotegi aretoan (irudikoa). Horrez gain, banda gazteak Soraluzen jo zuten atzo, domeka. | A.G.



- Merkatuko lehen markak
- Mota askotako estiloak
- Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA  
**Ipar**  
project, s.l.  
SUKALDEAK - BAINUAK - ZERAMIKA

Telleria 23, D5 pabilioia.  
**Labegarieta Industrialdea BERGARA.**  
Tel.: 943 76 98 30. Faxe: 943 76 52 44.





ESTREINALDIA ARRASATEN | SARRERAK AGORTU EGIN ZIREN KILOMETROEK ANTOLATUTAKO EMANALDIAN

# Do Re Mi doktorearen burutazioek dantza eta kantua eragiten dute

*Oskorrik umeendako egindako ikuskizun berriak harrera beroa izan zuen Arrasaten*

**Non.** Arrasateko Uarkape pilotalekuan.  
**Zenbat jende.** 1.500 lagun.  
**Iraupena.** Ordu eta erdi.

Larraitz Zeberio

Zalaparta zen nagusi Arrasateko Uarkape pilotalekuan emanaldia hasi aurretik. Gero ere horrela izan zen, baina Do Re Mi doktorea eta bere lagunak zalaparta horri erritmo zentzuduna jarzkeko gauza izan ziren.

Arrasaten estreinatutako domeka iluntzean Oskorrik umeendako prestaturiko *Doktor Do Re Mi eta benedizebra* ikuskizun berria. "Berehala ikusiko dugu Arrasateko umeak benetan zarenten jostalarienak eta dantzarienak", esan zuen emanaldi hasieran Do Re Mi Doktoreak.

Hori egiaztatze hainbat frogak gairatu behar izan zituzten Uarkapen bildutako hurrek: arraunean egin, zapatak atera eta airera bota, arropak jantzi eta erantzi... ariketa fisiko asko azken finean. Froga intelektualak ere egin behar izan zituzten, hala nola numeroak ikasi eta kontuak egin. Denak erraz gairatu zituzten Arrasateko hurrek.



AINZANE AGIRRE

Mediku mantala jantzita hainbat froga egin zizkieten doktoreek Arrasateko umei. Osasun bikainean daudela ondorioztatu zuten.

## 23 KANTUKO ERREPERTORIOA

Oskorrik ikuskizun bihurtu du umeendako egin duen hirugarren diskoa. Zortzi musikaririk eta sei antzezlaririk osatzen duten lan-taldeak Gipuzkoan bildu eta moldatutako 23 kanta herrikoien inguruan egituratzen du ikuskizun guztia.

8 musikaririk eta 6 antzezlaririk Gipuzkoan bildutako 23 kanta herrikoia jasotzen dituzte

Gorputz eta arima jarraitu zituzten Arrasateko umeek Do Re Mi Doktorearen esanak

Gorputz eta arima jarraitu zituzten Arrasateko umeek Do Re Mi Doktorearen esanak. Hain umeak ez zirenek ere gustura gogoratu zituzten haurtzaroko kantuak. Bat baino gehiago ikusi genuen Doktorearen aginduetara zapata atera eta airera botatzen.

## Patxiku Txerren ipuin bilduma aurkeztu zuten Antzuolan

*140 ale atera ditu Antzuolako udal Liburutegiak. Liburua aurkeztu aurretik ipuin kontalaria aritu zen*

M.D.

Antzuolako Herri Eskolako lehenengo eta seigarren mailara arteko ikasleek parte hartu dute Patxiku Txerren ipuingintza

saioan, eta aurrean ere, aukeraturako lanekin liburua osatu du Udal Liburutegiak.

Zapatu arratsaldean aurkeztu zuten liburua. Eskolako umeidazle bakoitzak ale bana jaso zuen, eta ikastetxean eta liburutegian egongo dira beste ale batzuk; guztira 140 ale argitaratu dituzte. Liburuak 8 ipuin jasotzen ditu; "maila bakoitzeko lan bana jasotzea zen asmoa, baina batzuetan zaila izaten denez aukeraketa, mailaren baten bina lan daude", adierazi digu Udal liburutegiko arduradunak.

"Ikasleek jasoko duten liburuez gainera, jatorrizko ipuinen liburua ere erakusgai daukagu udal liburutegian. Hantxe daude umeek idatzitako ipuinak eta egindako marrazki guztiak".

## IPUIN EGILEAK

Elene Baztarrিকা eta June Azkarrateaskasua (1. maila), Endika Cabo (2.-a), Mikel Jauregi (3.-a), Ane Martin (4.-a), Alaitz Urkiola eta Josune Cantero (5.-a) eta Jone Larrañaga eta Onintza Legoburu (6.-a) ikasleen ipuinak jaso dituzte liburuan.



AINZANE AGIRRE

Liburua aurkeztu aurretik Egoitz Lasa ipuin kontalaria emanaldia egin zuen.

Bergararra da eta gaur egun Brigada Criminal taldean dihardu. Bigarren diskoa kaleratzekotan dabilta -lehenengoa bakarka- eta maiatzaren erdi aldera egongo

da kalean. Bergaran hainbat taldetan jo du Aitorrek, Factoria 77 eta Frigel Rock taldeetan, esaterako, eta beste hainbat proiektutan ere aritu da. Lazkaoko Brigada

Criminalera kasualitatez iritsi dela aitortu digu, gau giroan ezagutu zituen lazkaotarrak eta gitarra jotzaile baten beharrean zeuden batean, deitu egin zioten.

AITOR ALDANONDO | BRIGADA CRIMINAL TALDEKO GITARRA JOTZAILEA

## “Maiatzean kaleratuko dugun diskoa aurrekoa baino rockeroagoa da, bariatuagoa, landuagoa”

Monika Belastegi

**Aurreko lana, *Osti Bi*, Stupenda Jones taldearekin batera atera zenuten. Bigarrena bukatzen diharduzue, hau bakarka. Heldutasunera iritsi zareten seinale?**

Ez. Diskoetxearen kontua izan da. *Osti Bi* grabatu genuenean, diskoetxearen asmoa zen probintzia bakoitzeko talde banak parte hartzea diskoan, baina azkenean, batzuek kale egin zuten eta Stupenda Jonesek eta guk grabatu genuen. Kontratu hark bigarren diskoa grabatzea aurreikusten zuen, eta orain eskuartearen duguna da horren emaitza.

**Nola dago grabazio kontua? Zein unetan zaudete?**

Bukatu dugu grabatzen. Duela bi aste bukatu genuen. Orain nahasketak egitea, masterizatzea... geratzen da. Diskoaren azala ere aukeratzeko daukagu, barruko liburutxo ere bukatzeko... Baina maiatzaren erdialdera kalean egongo da.

**Azken ukituak falta, baina mamia osatuta daukazue. Zenbat kantuk osatuko dute?**

Hamabi kantuk osatzen dute: bi gaztelaniaz dira eta gainerako hamarrek euskaraz. Kantuen tematikari dagokionez, geure bizimoduaren gainekoak dira abestien letrak, inguratzen gaituenaren gainekoak. Batzuek ukitu politikoa ere badute. Hitz gehienak Artola abeslariak egin ditu, baina Captain Nemoko abeslariak ere egin du kantuetako bat. **Diskoa grabatzen jardun duzuen denboran, ez duzue zuzeneko kontzerturik eman.**

Pixka bat nekatuta geunden erreperitorio bera egiten. Izan

ere, kontzertu nahikotxo egin genituen azken boladan. Horregatik erabaki genuen grabatu bitartean emanaldirik ez egitea. Dena den, egubakoitzean egin genuen kontzertu bat Lazkaoko mutil baten alde, baina ezhoiko gauza izan zen. Beraz horixe da arrazoia: atsedena behar genuen eta grabaziorako kantu berriak egiteko tartea ere bai. Lau bat hilabete behar izan ditugu erreperitorioa prestatzeko.

**Zer espero duzue disko berriak?**

Kontzertuak ateratzea eta gustukoa bada, hobe. Gustuko duguna egiten dugu eta gainerakoei ere gustatzen bazaie, bada, hobeto.

Asmoa da maiatzean, diskoa atera ostean, promozioari ekitea, bi bat astez, eta udan hainbat kontzertu emateko asmoa daukagu.

**“Disko berriarekin kontzertuak egiteko aukerak ateratzea nahi dugu, eta gustukoa baldin bada, hobe”**

**“Euskadi gazteak Musikan berria sailean emandako sariak, batik bat, promoziorako balio izan digu”**

**Horixe da, hain justu, gustukoen duzuen, kontzertuak egitea.**

Bai, baina diskoa egitea ere oso ondo dago, betiko geratzen delako hor. Ilusioa ere egiten du diskoa ateratzek.

Gai honekin loturarik ez badu ere, esango dizut, maketa Valentziako Camden Town diskoetxearekin atera genuela eta 500 bat kopia biniloan kaleratu behar dituela abisatu digute. Ehun kopia guri emango dizkigute eta saldu egingo ditugu. Biniloa polita da. **Disko berria Gor diskoetxearekin atera duzue. Ez da, baina, punk-rock taldeekin lan egin izan ohi duen diskoetxea.**


Marino Goñiri gustatu egin zitzaion gure musika eta talde berriei lekua egitearren aukera hau eskaini zigun.

**Punk-rocka aipatu dugunez, zuen kontzertuetara kaskamotz ugari joaten da. Zer dela eta, zuen estiloa punk-rock zabala delako, oi! ukituak dituelako...?**

Jendeak dio oi! ukituak ditugula. Baina nik badut beste teoria bat: kontzertuetan Cock Sparreren hainbat kantu jo izan ditugu, eta kaskamotzek oso gustuko duten taldea da. Bestalde, topo egin izan dugu kontzertuetan talde skinekin. Nik uste hortik datorrela gure kontzertuetara kaskamotzak etortzea. Eta horrez guztiaz gain, lagun ere baditugu hainbat eta hainbat.

**Disko berria ere horren gustuko izango dute?**

Ez dakit zer gertatuko den, izan ere, aurrekoaren ezberdina da. Rockeroagoa da eta askotarikoa, barietate handiagoa du aurrekoak baino. Bestalde landuago ere badago, denborarekin



Aitor Aldanondo bergararra erredakziora etorri zitzaigun.

taldeko kideok ere hobeto ezagutu dugulako elkar.

**Gaztea saria jaso duzue Musikan berria sailean. Zer ekarri dizue?**

Batik bat promoziorako balio izan digu. Baina kalean entzun behar izan dugu ea nolatan joan ginen saria jasotzera. Inork ez du

aitortzen, baina jende ugari entzuten du irrati hori.

**Ironia puntua nabaritzen dut.**

Grazia egiten dit. Batzuk sasi-kultur-gileak dira. Nik ere ez dut irrati hori gustuko, baina saria ematen badigute zergatik ez jaso? Ez digu inongo kalterik egin.

### Grabazio bitartean egindako geldialditxoaren ondoren, laster ekingo diete kontzertuei

RIP talde mitikoaren abestiari ohore eginez hartu zuen izena taldeak. “Nostalgikoak gara” esan digu Aitor Aldanondok, “oso modernoak ez, behintzat. Gainera, taldeko lau kideok oso gustuko dugu RIP”. Artolak –gitarra eta ahosa–, Aldanondok –gitarra eta koroak–, Josebak –bateria– eta Ikerrek –baxua eta koroak– osatzen dute Brigada Criminal taldea. Alboko argazkian daude laurak, Gor diskoetxearen teknikariarekin batera –bigarrena ezkerretik–.

Duela bi aste bukatu zituzten bakarkako lehen diskoaren grabazio lanak eta Aldanondok azaldu duenez, Stupenda Jones taldearekin

partekatu zuten *Osti bi* diskoarekin alderatuz gero, “nahiko ezberdina da”; “rockeroago” eta “bariatuago” moduan definitu du. Lan berriaren izenburua ez du aurreraterik nahi izan, baina bai hamabi kantuz osatuta dagoela: bi gaztelaniaz eta hamar euskaraz. Bestetik, aurrekoa baino lan landuagoa dela ere gaineratu du, batik bat “denborarekin taldeko kideok elkar hobeto ezagutzeko aukera izan dugulako”.

Diskoa grabatu bitartean ez dute zuzeneko kontzerturik egin, baina laster izango dugu taula gainean ikusteko aukera. Izan ere, maiatzaren erdira diskoa kaleratu eta promozio kontzertuei ekingo diete.



## Argazki lehiaketa eta tailerra, Arrasateko Emakume Txokoak deituta

*Nazioarteko Langileen Eguna aintzat hartuta, 'Emakumea eta Lana' lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago*

Leire Kortabarria

Nazioarteko Langileen Eguna-  
ren inguruan antolatu den ekin-  
tza da Arrasateko Emakume  
Txokoko argazki lehiaketa.  
Aurten bigarren edizioa izan-  
go du, eta *Emakumea eta Lana*  
da beronen izenburua eta gaia;  
iazkoa *Emakumea lan ezber-  
dinetan* izan zen, eta hogeitau  
bat lan aurkeztu ziren. Hiru sari  
banatuko dituzte, guztira 700  
euro: onenari, 300 euro; emak-  
ume eta gizonen arteko auke-  
ra berdintasuna ondoen isla-  
tzen duenari, 250; eta 18 urte-  
tik azpiko onenari, 150 euro.

Parte hartzeko epea zabalik  
dago maiatzaren 13ra bitarte-  
an, eta emakumezko nahiz gizo-

nezkoek esku har dezakete.  
Neurri aldetik, 18 x 24 cm eta  
30 x 40 cm bitartekoak izan  
behar dute, eta 40 x 50 cm-ko  
kartulinatan aurkeztu behar  
dira. Gehienez ere hiru lan  
onartuko dizkiote lehiakide  
bakoitzari.

Argazkiak Arrasateko uda-  
letxera eraman behar dira. Aur-  
keztutako lanekin erakusketa  
ipiniko dute maiatzaren 23tik  
ekainaren 3ra bitartean.

### IKASTAROA

Bestelako aisialdi ekintzak ere  
antolatu ditu Emakume Txo-  
koak. Esaterako, zabalik dago  
emakumeendako argazkigint-  
za digital tailerrean izena ema-  
teko epea, hilaren 29ra bitar-  
tean. Horretarako, 943 79 41 39  
telefonora deitu behar da. Ikas-  
taroa bera maiatzaren 5, 12, 19  
eta 26an emango dute euren  
egoitzan, 18:00-20:00 ordutegian.  
Prezioa 20 euro da, 10 euro lan-  
gabeendako.

Udaberri parterako beste  
ekintza batzuk ere antolatu  
dituzte; esaterako, Pagoetara  
irteera egingo dute maiatz par-  
tean Emakume Txokotik

## Labur

### Bergarako Udalak zinemari eusteko eskatuz sinadurak batzen ari dira

Bergaran geratzen zen azken zinema aretoa itxi dela eta, herri-  
tar talde batek eskatzen du Udalak "ahalik eta azkarren behar-  
rezko gestioei ekiteko gabezia hori ekiditeko". Hala egin dute  
Udalari zuzendutako gutun baten, Bergarako zinemaren ohiko  
erabiltzaileen taldeak izenpetuta, eta euren eskaera babesteko  
sinadurak batzen dabilta maiatzaren 5era arte.

Taldeak gogoratzen du inguruko herrietan "udal gestio zuzen  
baten ondorioz, zinema aretoak mantendu" egin direla.

### Jasone Osororekin literatura tertulia izango da bihar, martitzena, Oñatin

Jasone Osoro (Elgoibar, 1971) idaz-  
learekin berriketan egiteko auke-  
ra izango da bihar, martitzena,  
Oñatiko kultura etxean, 19:30ean,  
Udal Liburutegiaren literatura  
solosaldien barnean. Lehenengo  
emakumezkoa izango da solasal-  
diotan.



### I. Magia Mostra aurkeztuko dute Elgetan egunean, hilak 28

Elgetako Espaloia antzokiak I. Magia Mostra aurkeztuko du egue-  
nean, hilak 28, 11:00etan. Gasteizko Ilusionista Elkartearekin bate-  
ra antolatu dute ekintza hori, eta horren berri zabala emango dute.

Munduan ezagunak diren mago eta ilusionistek emanaldiak  
egingo dituzte Elgetan datorren asteburuan: Anthony Blake, Luis  
Boyano, Jandro, Arkadio, Sergi Buka, Morrison... eta beste batzuk  
izango dira. Nazioarteko kongresu eta lehiaketa ospetsuenetako  
batzuetako irabazleak tartean dira.

## Hitzorduak



### MUNDUKO ZERAMIKAGILE ONENETAKO BATZUK, DEBAGOIENEAN |

Telleria Baserriko II. Jaia Eskoriatza eta Oñatira zabalduko da aurten

Eguenean, hilak 28, hasiko da Telleria Baserriko  
Jaia. Iaz 2.500 bisitaritik gora erakarri zituzten  
Ceramikarte elkarteak antolatutako topaketek, eta  
aurtengo berritasuna da, Arrasatez gain, Eskoriatzan  
eta Oñatin ere egingo direla ekitaldiak. Aurtengo  
eskaintza nagusia Herbehereetako NVK zera-  
mi-

kagileen erakusketa da, Oñatiko kultura etxean.

Erakusketa hori eta beste hiru zabalik egon-  
go dira apirilaren 28tik maiatzaren 8ra, Oñatiko  
kultura etxean, Harresin, Monterronen eta Iba-  
rraundin. Zeramikaren zinema zikloa ere egingo  
dute hilaren 29an hasita.

### ZINEMA |

• *Los chicos del coro* filma  
emango dute Arrasaten  
Amaia antzokian emango dute  
film hori gaur, astelehena,  
20:30ean. Gaur ikuslearen egu-  
na denez, 3 euro da sarrera.

• *Entre copas* filma emango  
dute gaur, astelehena  
Oñatiko kultura etxeko zine-  
ma aretoan emango dute film  
hori, 19:30ean. Ikuslearen egu-  
na denez, 3 euro da.

• *El lobo* filmaren emanaldia  
izango da Elgetan  
Etzi, eguaztena, emango dute  
film hori Espaloia kafe antzo-  
kian, 21:30ean.

• *Primavera, verano, otoño,  
invierno... y primavera* filma  
Eguenean, hilak 28, emango  
dute film hori Oñatiko kultu-  
ra etxean, 20:00etan zineklub  
saioan. 4 euro da sarrera.

• *Whisky* filma izango da  
Arrasaten, zineklub saioan  
Eguenean, hilak 28, emango  
dute film hori. Amaia antzo-  
kian izango da, 20:30ean.

### ERAKUSKETAK |

• *Pello Alberdi* elgetarraren  
margolan erakusketa  
Arrasaten du erakusketa, Arre-  
gi markoztatze dendan.

• *Jone Telleriaren erakusketa*  
Bergarako Nahikarin  
Jone Telleriaren margolan era-  
kusketa dago Nahikari taber-  
nan apiril osoan.

### DEIAK |

• *Irakurmaratoia egingo dute*  
Aretxabaletako eskolan  
Kurtzebarri eskolako Litera-  
tura Topaketak bukatzeko,  
XIV. Irakurmaratoia egingo  
dute egunean, hilak 18, goiz  
eta arratsalde. Ikasleak, gura-  
soak eta herritarrak daude  
gonbidatuta. Ikasleek eginda-  
ko bilduma, ipuin, aldizka-  
riak... erakutsiko dituzte.

### MUSIKA |

• *Bergarako musika eskolako*  
ikasleen emanaldia  
Soka ikasleek emanaldia egin-  
go dute gaur, astelehena, Sier-  
betako elizan, 18:30ean, musi-  
ka eskolak antolatutako Musi-  
ka Astea bukatzeko.

### ANTZERKIA |

• *Maite Franko ipuin*  
kontalariaren emanaldia  
Maite Franko ipuin kontala-  
riak 4-8 urte bitarteko umeen-  
dako ipuinak kontatuko ditu  
eguztenez, hilak 27, Arra-  
saten, Santa Marinako auzo  
liburutegian, 17:00etan.

• *Ingeleseko antzezlan*  
*Txantxiku ikastolaren eskutik*  
Eguenean, hilak 28, izango da  
antzezlan English Theatre  
Company taldearen eskutik,  
Santa Ana aretoan. 09:00etan,  
HHko eta LHko 1., 2., 3. eta 4.  
mailakoendako emanaldia  
izango da, eta 10:45ean, berriz,

LHko 5. eta 6. mailako eta DBH-  
ko 1. eta 2. mailakoendako.  
Ikastolaren Eguneko egita-  
rauren barne dago ekitaldia.

### LEHIAKETAK |

• *Arrasateko jaiak*  
*iragartzeko kartel lehiaketa*  
Debagoienarrei zabalduko  
lehiaketa da. Lanen gutxiene-  
ko neurria 28 x 21 cm da, eta  
derrigorrezko testua, *2005 San*  
*Juan jaiak Arrasate*. 750 euro-  
ko saria emango dute. Udale-  
txeko kultura sailera eraman  
behar dira lanak maiatzaren  
20a baino lehen.

### ERAKUSKETAK |

• *Juan Jose Altunaren*  
erakusketa Gasteizen  
Raquel Recio aretoan dago  
margolari bergarar horren era-  
kusketa, Dato kaleko 40an.  
Ordutegia: 11:00-14:00 eta 17:30-  
21:30. Etzi, eguaztena, da azken  
eguna.

### OSPAKIZUNAK |

• *Txantxiku Ikastolaren*  
eguneko jaialdia  
Bihar, martitzena, egingo dute  
jaialdi hori Santa Ana antzo-  
kian. 14:30ean, ikasleendako  
emanaldia izango da, eta  
18:00etan, gurasoendakoa.  
• *Elorregiko jaiak ospatuko*  
dituzte datorren astean  
Elorregi auzoko jaiak ospatu-  
ko dituzte egunean, hilak 28.

**Zorion agurrak**



ARRASATE  
**Ane Astondoa**  
Hilaren 21ean, 7 urte. Zorionak eta muxu bat! Aita, ama eta etxeakoak.



ARRASATE  
**Aitor Sanchez**  
Apirilaren 22an, 16 urte. Zorionak! Aiton-amonak eta etxeakoak.



ARRASATE  
**Erika Revalo**  
Apirilaren 24an, 19 urte. Zorionak eta muxu bat *Piti!* Txori eta Ima.




ARRASATE  
**Ainhoa Larrañaga**  
Apirilaren 24an urteak. Zorionak eta urte askotarako *Larra!* Lagunak.



ARRASATE  
**Haritz Berasaluze**  
Apirilaren 27an, 5 urte. Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE  
**Jose Luis Ezkurra**  
Apirilaren 25ean, urteak. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.



BERGARA  
**Irantzu Albizuri**  
Apirilaren 22an, 5 urte. Zorionak! Egoitz anaia eta etxeakoak.



BERGARA  
**Olaitz Agirrezabal**  
Hilaren 22an, urtebete. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Mikel Zubizarreta**  
Apirilaren 23an, 5 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta arreba Garazi.



BERGARA  
**Maider Oregi**  
Hilaren 26an, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Ramon Agirrezabal**  
Hilaren 26an, 35 urte. Zorionak eta urte askotarako! Olaitz eta Leire.



BERGARA  
**Alazne Urkiola**  
Maiatzaren 1ean, 2 urte. Urte askotarako! Etxekoak, bereziki Maitane.



OÑATI  
**Unax Arregi**  
Apirilak 21ean, 3 urte. Zorionak Tio Miel eta Tia Arantxaren partez.



OÑATI  
**Aintzane Agirre**  
Apirilaren 26an urteak. Zorionak eta urte askotarako! Lankideak.



ARETXABAETA  
**Oihana Barrutia**  
Apirilaren 17an, 26 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Lagunak.



ARETXABAETA  
**Daniel Sarasua**  
Apirilaren 22an, 4 urte. Zorionak eta muxu bat. Joanes eta gurasoak.



ARETXABAETA  
**Nagore Cebrino**  
Apirilaren 24an, 5 urte. Zorionak! Unai, Beñat, Malen, Jone eta Mikel.



ARETXABAETA  
**Laura Igartua**  
Apirilaren 24an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Ainara.



ARETXABAETA  
**Aner Idigoras**  
Apirilaren 24an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxekoak.



ARETXABAETA  
**Estitxu Uribetxeberria**  
Apirilaren 25ean, 26 urte. Zorionak eta muxu bat. Lagunak.



ARETXABAETA  
**Markel Pando**  
Apirilaren 29an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat. Etxekoak.



ARETXABAETA  
**Celestino Okaranza**  
Apirilaren 26an. Zorionak eta muxu bat aitona. Maitane.



ARETXABAETA  
**Iraitz Arriaran**  
Apirilak 26an, 3 urte. Zorionak Iraitz, eta muxu bat amatxorentzako.



ESKORIATZA  
**Itxaso Eraña**  
Apirilaren 27an, 11 urte. Zorionak eta muxu bat! Familiaren partetik.



ESKORIATZA  
**Ander Zubia**  
Apirilaren 27an, 9 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxekoak.



ANTZUOLA  
**Alazne Rodriguez**  
Hilaren 25ean, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako Alazne! Etxekoak.



SORALUZE  
**Arantzazu Arana**  
Apirilaren 25ean 37 urte. Zorionak eta muxu bat soinujoelen partez.

**Jaiotakoak**



**Asier Bueno del Campo**  
Arrasate • 3,700 Kg.  
Apirilak 19. Gurasoak: Agustín (Basauri) eta Conchi (Villanueva). Argazkian: Asier amaren besoetan eta aitarekin.



**Aratz Martin Bolinaga**  
Aretxabaleta • 3,850 Kg.  
Apirilak 20. Gurasoak: Bixente (Aretxabaleta) eta Ana (Arrasate). Argazkian: Aratz ahoa zabalik duela lo.




**Nerea Gabilondo Aizpurua**  
Aretxabaleta • 3,690 Kg.  
Apirilak 20. Gurasoak: Xabier eta Aintzane (Aretxabaleta). Argazkian: Nerea bapo lo bere kuman.



**Beñat Familiar Romero**  
Bergara • 3,030 Kg.  
Apirilak 20. Gurasoak: Ina eta Kris (Bergara). Argazkian: Beñat amaren besoetan.



**Asier Agiriano Bermejo**  
Arrasate • 2,950 Kg.  
Apirilak 21. Gurasoak: Jos eta Susana (Arrasate). Argazkian: Asier, Maite izebak besoetan hartuta duela.



**Oier Calderon Conde**  
Arrasate • 2,550 Kg.  
Apirilak 21. Gurasoak: Candido eta Isabel (Arrasate). Argazkian: Oier, Joe izebak besoetan hartuta duela.



**Yasir Nchichou**  
Oñati • 3,000 Kg.  
Apirilak 21. Gurasoak: Jamet eta Rahma (Maroko). Argazkian: Yasir bapo lo kuman, eskua ahoan duela.



**Ugaitz Anduaga Garitano**  
Oñati • 3,125 Kg.  
Apirilak 21. Gurasoak: Joseba (Oñati) eta Miren (Antzuola). Argazkian: Ugaitz, Ander osabarekin.



**Unax Zangitu Sanchez**  
Bergara • 3,450 Kg.  
Apirilak 22. Gurasoak: Xabi (Osintxu) eta Sonia (Bergara). Argazkian: Unax amaren eta aitaren artean.

**Hildakoak**

- Petra Aranburu Guridi**  
Oñati, apirilaren 19an. 85 urte.
- M<sup>a</sup> Pilar Aginalde Arenaza**  
Arrasate, apirilaren 23an. 78 urte.
- Maria Elorza Goitia**  
Oñati, apirilaren 23an. 80 urte.
- Felix Urzelai Bikuña**  
Oñati, apirilaren 23an. 59 urte.

**sms mezuak**

- Zorionak, Aintzane. Asteleheneko Goienkariko lankideen partez! Ondo ospatu eta bueltak amari!
- Aintzane, datorren asteburuko lehenengo garagardoa zure kontura! Zorionak, neska!
- Aupa, Alaves! Datorren urtean danok lehenengo mailan!

- Telebistazaleok! Asteon ez piztu telebista! Egin bat ekimenarekin!
- Switch of TV! Denon artean lortuko ditugu telebista saio duinak!
- Pepiri bihotzez: erantzun mezua mesedez. Datorren Astelehenekoan egin seinale bat. Mesedeeeee-ezzzz!



**Baita SMS bidez ere!**

Bidali mezua:  
**gnkzorion [laqa tartea] [mezua] 7744 zenbakira.**

Hurrengo **Asteleheneko Goienkaria**-n irakurri ahal izango du berak zure mezua...

SMSaren kostua 0,90 euro+BEZa



**ESKELAK**  
ASTELEHENEKO  
GOIENKARIAN

82 euro  
**943 76 92 71**

## nolako ikasketak halako lana



### GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

#### ARRASATEko Campusa

##### Lehen zikloa

- Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa (Telematika eta Telekomunikazio Sistemak).

##### Bigarren zikloa

- Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza.
- Industri Antolakuntzan Ingeniaritza.
- Informatikan Ingeniaritza.
- Industri Ingeniaritza.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza.

#### GOIERRIko Campusa

##### Lehen zikloa

- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.

### JARDUNALDI IREKIAK

#### ARRASATEko Campusa

943 71 21 92

- maiatzak 5, 17:30etan.
- 2. zikloa: maiatzak 26, 17:30etan.
- Biteri Ikastetxe Nagusia: ekainak 11, 11:00etan.

#### GOIERRIko Campusa

943 88 00 62

- apirilak 28, 17:30etan.

### ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

#### OÑATIko Campusa

##### Lehen zikloa

- Zuzendari Idazkaritza.

##### Ziklo luzea

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Lizentziatura.
  - Finantza Zuzendaritza.
  - Merkataritza Zuzendaritza.
  - Erakundeen Kudeaketa.

#### BIDASOko Campusa

- Enpresa Zientzietan Diplomatura.
  - Nazioarteko Merkataritza.
  - Enpresa Logistika eta Garraioa.

### JARDUNALDI IREKIAK

#### OÑATIko Campusa

943 71 80 09

- maiatzak 12, 18:00etan.

#### BIDASOko Campusa

943 63 91 29

- maiatzak 7, 10:00etatik 13:00etara.

### HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

#### ESKORIATZako Campusa

##### Lehen zikloa

- Irakaslea, Haur Hezkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Hezkuntza Berezia espezialitatea.
- Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Heziketa Fisikoa espezialitatea.
- Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira espezialitatea.
- Irakaslea, Lehen Hezkuntza espezialitatea.

##### Bigarren zikloa

- Psikopedagogian Lizentziatura.
  - Hizkuntzen Psikopedagogia.
  - Esku-hartze Psikopedagogikoa.

##### Ziklo luzea

- Giza Zientziak Lizentziatura.
  - Giza Zientziak Enpresari aplikatuta.
  - Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari aplikatuta.

### JARDUNALDI IREKIAK

#### ESKORIATZako Campusa

943 71 41 57

- maiatzak 19, 18:00etan.

inskripzio epea  
zabalik

**Gaur irratian**

**Arrasate Irratia**

FM 107.7

'Igo Autobusera' | 09:00

**Homosexualen ezkontzak gai nagusi**

Espainiako kongresuak homosexualak ezkontzeko legea onartu du. Horren harira, Arrasate Irratiak hitzordua egin du EHGA Meko Josune Ortizekin. 10:10ean izango da elkarriketa. Horrez gain, 10:35ean Juan Karlos Irizar musikagileak azkeneko diskoa aurkeztuko du.

**Oñati Irratia**

FM 107.4

'Neguko programazioa' | 12:00

**Oñatieraren gaineko jardunaldiak berbagai**

Astean Oñatin bertako azpieuskalkiaren gaineko jardunaldiak egingo dituzte. Jardunaldi horien antolatzaile Andoni Salamerori elkarriketa egingo diote. Salamero Elkar Heziko irakaslea da, eta hainbat alderdi azalduko ditu.

**Loiola Irratia**

FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00

**Debako eta Eibarko alkateei elkarriketak**

**Euskadi Irratia**

FM 104.4

'Faktoria' | 11:00

**10 urteko ikasleak, Aita Santuaren gainean**

**Radio Euskadi**

FM 98.2

'Bulevar' | 09:30

**Confebask-eko Guillermo Zubiari elkarriketa**

**Gaur telebistan**

**GOITB**



**'Harmailatik' Ibarreko kirolak GOITB-n**

21:30 Julen Iriondok aurkeztu duen saioan, asteburuak kirol kontuetan eman duena errepasatuko dute.

13:45 Emisio hasiera.  
13:50 Marrazki bizi-dunak: *Sherezade*. (Egubakoitzekoak emandakoaren errepikapena).  
14:10 Marrazki bizi-dunak: *Lazkao Txiki*.  
14:15 Berriak aurre-berriak.  
14:30 Ilunpean.  
15:00 Eguzki lore.  
15:30 Berriak aurre-berriak.  
15:45 Klip@. Gaur egungo musika taldearen bideo-klipak. Hainbat musika estilo.  
19:30 Emisio hasiera.  
19:35 Gaurkoak. Albisteak.  
19:45 Klip@.  
20:00 Berriak. Deiane Arrietak aurkeztutako albistegia.  
20:30 Marrazki bizi-dunak.  
21:00 Baneki. Mikel Aranburuk aurkeztu duen gazteei zuzendutako telebista saioa.  
21:30 Harmailatik. Kiroletan asteburuak eman duena Julen Iriondoren eskutik.  
22:00 Berriak.  
22:30 Ordiziaren eta Liceo Frances taldearen arteko norgehiagoka.  
23:00 Harmailatik (Kirol saioaren errepikapena).  
23:30 Gaurkoak.  
23:45 Emisio amaiera.

**ETB 1**



**Maria Luisari ez du Jesusekin joan gura**

21:45 *Goenkale* Jesusek Maria Luisari proposatzen dio Chiclanarajoateko bizitzera, baina ez du onartzen.

07:05 Tik Tak circus.  
07:30 Betizu. *Doug, Hirukiak, Doremiren magia, Kong eta Sorginen aspertua*.  
09:25 E-Klipse@.  
09:50 Travel Notes.  
10:15 Elkartasunaren bideak.  
10:50 Amama sukaldari.  
11:00 Bidaide.  
11:50 Bertatik Bertara.  
12:20 Hitzetik Hortzera.  
13:05 Barne barnetik.  
13:35 Betizu. *Burdin Ahoren marrazki bizi-dunak*.  
14:00 Gaur Eguna.  
14:40 Postdata.  
14:45 Eguraldia.  
14:55 Hasiberriak. *Heldugabeak helduta*.  
15:15 Bidaide. *Natural Geographic*.  
17:05 Sustraia.  
17:35 E-Klipse@.  
18:00 Iparraldearen orena.  
18:05 Betizu.  
20:20 Eguraldia.  
20:28 Gaur Eguna.  
21:05 Bertatik Bertara.  
21:45 Goenkale.  
22:25 Sorginen larantz.  
23:55 Eguna iruditzen.  
00:00 Postdata.  
00:05 Teknopolis.  
00:35 Sautrela.  
01:05 Egi bidean.

**ETB 2**



**Jonas bere herrira itzultzen da taldekideekin**

11:00 *Stargate*-eko taldea Kelowna-ra itzuliko da, Jonás-en jaioterrira, baina Anubis ere handik dabil.

07:00 Del país de los vascos.  
07:30 Rutas de solidaridad. *Ecuador: oro negro, vida negra*.  
08:05 Embrujada.  
09:00 Forum.  
09:30 El Punto.  
10:05 Matrimonio con hijos.  
11:00 Stargate. *Regreso a casa*.  
12:15 Se ha escrito un crimen. *Presagio de muerte* eta *¿Quién puso barbitúricos en la sopa?*  
13:55 Date el bote. Carlos Soberarekin.  
14:58 Teleberri 1. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua.  
15:55 Eguraldia. Ana Urrutiarekin.  
16:00 Pásalo. Adela Gonzalez eta Iñaki Lopezekin.  
18:25 Siempre cine. Zehaztu bariko filma.  
20:20 Esta es mi gente. Klaudio Landarekin.  
20:58 Teleberri 2. Julio Ibarrearekin.  
21:50 Eguraldia.  
21:55 Operación gran sol.  
00:00 El día en imágenes.  
00:05 Documental.  
01:10 La zona muerta. *Cuentos del más allá* eta *Jugar a ser Dios*.  
02:50 Esta es mi gente.  
03:25 Date el bote.  
04:20 Pásalo.

**TVE 1**



**Zapatero presidentea '59 segundos' saioan**

23:30 Orain delabaste hitzordua atzeratu eta gero, Rodríguez Zapatero gaur izango da Mamen Mendizabalekin.

06:00 Canal 24 horas.  
07:00 Telediario matinal. Igor Gomezekin eta Susana Rozarekin.  
09:00 Los desayunos de TVE. Pepa Buenorekin.  
10:00 Saber vivir.  
11:15 Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egiten dituzten magazina. Ana Blanco albiste aurrerapena egingo du.  
14:00 Informativo territorial.  
14:30 Corazón de primavera. Txutxumutxuen gaineko saioa Anne Igartibururekin.  
15:00 Telediario 1. Ana Blanco eta Maria Escarriorekin.  
15:55 El tiempo.  
16:00 Amor real.  
17:15 Obsesión.  
18:15 Cuéntame cómo pasó. *B-1 Hundido*.  
20:00 Gente.  
21:00 Telediario 2.  
21:55 El tiempo.  
22:00 Ana y los siete. *Las dudas de los Hidalgo*. Luciak berba egiteko dituen zailtasunak ikusita, Luciak erabakitzen du irakasle lanetan hastera.  
23:30 59 segundos. Mamen Mendizabalekin.  
01:30 Telediario 3.  
02:00 Los vigilantes de la playa.  
03:30 Canal 24 horas.

**La 2**



**'Crónicas': Atzerritarren egoera aztergai**

23:45 Estatuan hiru milioi eta erdi atzerritar bizi dira, eta horietako ia erdia arautu gabeko egoeran daude.

07:15 That's english.  
07:30 Los Lunnis. *Tiroloko, Aventuras en pañales* eta *Tweenies*.  
09:30 Aquí hay trabajo.  
10:00 TV educativa: la aventura del saber.  
11:00 La botica de la abuela.  
11:15 España.es  
13:00 Los Lunnis. *Digimon, Arthur*, eta *La vaca Connie*.  
15:15 Saber y ganar. Jordi Hurtadorekin.  
15:45 Grandes Documentales. *La tribu perdida de Ruanda*.  
17:00 Frontera Límite.  
16:55 Frontera Límite.  
17:30 Los Lunnis.  
19:15 Padres en apuros.  
19:30 Pueblo de Dios.  
20:00 Informativo territorial.  
20:30 Previa UEFA Champions League.  
21:00 Vivir con Mr. Cooper.  
21:30 Miradas 2.  
21:55 Sorteo de la Bonoloto.  
22:00 La 2 Noticias.  
22:40 El Tiempo.  
22:45 Crónicas. *Acentos*.  
23:30 Estravagario.  
00:30 Metropolis.  
01:00 Radio3.  
01:30 A ciencia cierta.

**Antena 3**



**'Los Simpson' saioan, zabor-jana**

14:00 Homerrek sekula ere ez du zaindu zer jan duen, eta dagoeneko bere bihotza hasi da kexuka.

06:00 Las noticias de la mañana.  
09:00 Ruedo Ibérico.  
10:00 En buenas manos.  
10:45 Cada día.  
14:00 Los Simpson. *El señor quitanieves*. Elurtean bi automobil apurtu eta gero, Homerrek elurra kentzeko makina erostea erabakitzen du. *El triple bypass de Homer*. Horrenbeste urte edozer gauzajaten egon eta gero, Homerren gorputzak nahikoa dela esan du.  
15:00 Noticias 1.  
15:45 La buena onda de la tarde. Alicia Senovillarekin.  
18:00 Números locos.  
19:00 El diario de Patricia.  
20:15 Pasapalabra.  
21:00 Noticias 2.  
21:45 El peliulón. *Hombres de Honor*. Zuzendaria: George Tillman. 2000. Antzezleak: Robert De Niro, Cuba Gooding, Charlize Theron. Carl-en aitak seme-ari gauza bat erakutsi dio: ametsak gauzatzeko, besteek jarriko dizkieten oztopoei aurre egiten.  
00:40 7 días, 7 noches. Teresa Viejoarekin.  
02:00 Noticias 3.  
02:25 Televinta.  
05:00 Errepikapen.

**Tele 5**



**Diskoteka bat sutan 'CSI' saioan**

23:00 Diskoteka batek sutatu, eta hamasei lagun hil dira. Horatiok eta bere taldeak erantzulea bilatu beharko dute.

06:30 Informativos Telecinco matinal.  
09:10 La mirada crítica. Vicente Vallesek.  
10:45 El programa de Ana Rosa. Ana Rosa Quintanek aurkeztuta. *La cocina de Karlos Argiñano* ere emango dute.  
14:30 Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Carme Chaparroarekin.  
15:30 Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcayderekin.  
16:30 La casa de tu vida. Laburpena.  
17:00 A tu lado. Emma García eta Félix Alvarezekin.  
19:30 Alla tú. Jesus Vazquezekin.  
20:30 Informativos Telecinco. Angels Barceló eta Agustín Hernandezekin.  
21:15 Pecado original.  
22:00 C.S.I. Las Vegas. *Amariposado*.  
23:00 CSI Miami. *Polvorín*  
00:00 Crónicas Marcianas.  
02:20 Informativos Telecinco. Alvaro Rivasekin.  
02:45 Madrugada de cine. *La aritmética del diablo*.  
04:15 Infocomerci.

**Astean GOITBn**

Astelehena, 25



'Errugbi norgehiagoka' | 22:30

**Ordizia eta Liceo Frances taldeak aurrez aurre**

Joan den astean lortu zuen Ordiziak lehenengo mailarako txartela. Talde horretan jokatzeko du Iker Elortza arrasatearra, eta norgehiagokan hori eskainiko dizuegu.

Martitzena, 26



'Debarri' | 21:00

**Martitzenean, Antzuolako alkateari elkarriketa**

Alberto Gorritibereak Antzuolako kontuak izango ditu berbagai *Debarri* saioan. Alkateari elkarriketa egingo dio, eta betiko moduan, herritarrek ere esku hartu ahal izango dute.

Eguaztena, 27



'Añamendietan' | 22:30

**Mendi madarikatua, Aneto**

Pedro Ruiz Cabestanyk eta bere taldeak Anetoko tontorra izango dute abiapuntu. Kapituluaren izenak ondo dioen moduan, Aneto arriskutsua izan daiteke.

Eguena, 28



'Baneki' | 21:00

**Ikusleendako SMS lehiaketarekin**

GOITBk ibarreko gazteendako mar-txan jarri duen Baneki saioan ikusleek ere aukera dute euren etxetik esku hartzeko. Hori bai, sakelako telefonoa eskuan daukatela.

Egubakoitza, 29



'Ilunpean' | 21:00, 22:30

**Afrika abeslariari egingo diote elkarriketa**

Oihana Elortza kazetariak Afrika Bibang ekarriko du GOITBko platora. Besteak beste, aurtengo Korrikaren abestia egin du musikari bizkaitarrak.

Apirilaren 25a: 040 zozketa

Harpidedunen  
**txokoa**

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, apirilak 25, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!  
*Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

## BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

**Harpidetza kuota, 35 euro**

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.  
Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

- Bedarreta taberna (Aretxabaleta)
- Xabier Aiausti (Arrasate)

Argiaren "LAUBURUA" jokoa.

- Maria Jesus Laskurain (Bergara)

## Maiatzaren 3ko sariak

- "LAUBURUA" mahai jokoa Argia argitaletxearen eskutik.



**EIBAR-ALMERIA**  
futbol partidua ikusteko sei sarrera.

(Saridun bakoitzarendako bi)





## Hamarrekoa

AFRIKA BIBANG | MUSIKARIA

### "Abenduaren 24an betetzen ditut urteak eta askotan ez da ama ere akordatzten"

Oihana Elortza

**1. Txikitatik nahi izan duzu musikaria izan?** Orain konturatzen naiz baietz. Lan ezberdinetan jardun dut aurretik, eta ikasi ere denetarik egin dut, baina musika beti eraman dut soinean eta oraintxe konturatzen naiz musika egin nahi dudala.

**2. Erizaina izan nahi zenuen?** Medikua, baina odola ikusteaz bat mareatu egiten nintzen eta amak esan zidan mareatzen diren medikuak ez ditugula behar.

**3. Nola etorri ziren zure gurasoak Ekuatore Gineatik Euskal Herrira?** Lehendabizi Zaragozara joan ziren, ikasketak egitera, eta handik Euskal Herrira etorri ziren. Eskerrak; ez litzaidake gustatuko Zaragozan bizitzea, hain ondo bizi gara hemen.

**4. Ze hizkuntzatan hitz egiten duzue etxean?** Lau anaia arreba eta gurasoak bizi gara etxean. Anaia gazteenarekin euskaraz hitz egiten dut eta beste biekin gaztelaniaz. Gurasoek berriz, haserre daudenean, *fang* hizkuntzan hitz

egiten digute eta orduan laurok dakigu benetan haserre daudela gurekin.

**5. Zure gurasoen hizkuntza sartu duzu zure diskoan.** Etxean entzuten dut, ulertzen dut eta badakit hitz egiten, beraz, zergatik ez?

**6. Zu izan zara inoiz Ekuatore Ginean?** Oraindik ez baina badut joateko asmoa, denbora baterako, gainera, ez bisitan soilik. Hala ere, hango senitartekoekin badut harremana, telefonoz maiz hitz egiten dugu eta eskutitzak ere idazten dizkiogu elkarri.

**7. Fermin Muguruzak animatu ez bazintu, animatuko zinateke zeure disko propioa ateratzeko?** Ez nuen neure burua ordubete eta erdian, gelditu barik, eszenatoki batean ikusten, oso lotsatia naiz. Etsaiak taldean abesti batzuetan bakarrik kantatzen nuen eta hori ezberdina zen. Beste talde batekin egin nuen proba lehengo eta Ferminen animoak erabakigarriak izan ziren.

**8. Gustatzen zaizu zure urtebetetze eguna ospatzea?** Abenduaren



MONIKA MONTERO

Bilbon jaio zen Afrika duela 29 urte eta egun Algortan bizi da. Kontzertuetan jendea bere abestiak kantatzen ikusteak sekulako zirrara eragiten dio. Txikitatik musika beltza entzun du etxean eta gaur egun ere horixe entzuten du, nahiz eta denetarik erosten duen. Hilabeteko ikastaro trinko bat egin zuen AEKn euskara ikasteko eta Afrikak ere *Ni ere bai* esan dio Korrika 14ri.

24an betetzen ditut urteak eta Gabonak direla eta, inor ez da gogoratzen, ezta ama ere askotan.

**9. Noiz zoaz Aizkorrira hurrengo?** Aspaldian ez naiz joan baina lagun

batekin sarri etorri izan naiz. Badut berriro joateko gogoia.

**10. Udarako prest?** Kontzertu dezente izango ditut eta disfrutatu egingo dut uda. Bai, prest.



Biharamuna

Iban Arantzabal

## Imaginazioa

Zapatuan Ruperren kontzertua. Antolatzaileok eta artista gustura eta hori seinale ona da. Ikusleek ere gozatu ederri, ondorioz. Rupertorio berriekin zetorrela bagenekien, baina "Hautsi da Anphora" zaharreko "zenbait bertso xeble" reggae ukituekin edo Bob Marleyren "no woman no cry" bertsiorekin... demasa! Imagina nezakeena baino kontzertu nobedosoagoa.

Zertxobait irakurtzeko ere hartu dut denbora *Elkarrizketa Federiko Krutwigekin* liburuari eman diot bistazoa. Honela dio Krutwig-ek: "gizonaren karakteristika imaginazioa da, irudipena; eta irudipena ez duen gizon bat ez da gizona, animalia da".

Politikaria=animalia? Aspaldian ez ditut batere fin ikusten historikoki imaginatiboenak izan diren ezkerreko alderdiak. Aste-an ikusi ditut orain 25 urte erabiltzen ziren lelo berberak karteletan, esaterako. Ea legegintzaldian erabiltzen duten imaginazioa. Egoera katramilatu honek eskatzen du animalia izateari uztea.

Eta politika hain aspergarria eta tristea den honetan eskumakoei ere eska geniezaioke imaginazioa, zergatik ez. Imaginatu *Fraga* eta *Raxoyren* arteko ezkontza, "Bai, gura dut" esanaz elkarri. Hori bai PSOEren lege aurrerakoiari aurre egiteko modu imaginatiboa. Edo pentsa maria ilegalizatzearen kontrako fumata. Hori bai fumata! *Ratzinger*, *Aznar* eta *Ana Palacio* dauden planeta baino harantzago. Mundiala litzateke, baina astelehen baterako imaginazio larregi ez den ere...